



4.645 ikaslek hasi dute ikasturtea eskualdean

04

Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Xareta-ko ikastetxeetako datuak bildu ditugu. Datuek erakusten dutenez, matrikulazioa nabarmen igo da.




Nafarroa nagusi Zazpi Herrialdeen txapelketan

45

Seigarren aldiz jantzi du Nafarroak Zazpi Herrialdeen arteko herri kirol txapelketa. Nafarroako taldean eskualdeko hainbat kirolarik parte hartu du.

2008ko urriaren 2a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net



AFADENA NAFARROAKO ADOPZIO FAMILIEN ELKARTEA

**03 Adopzio familien talde sendoa
sortu nahi du AFADENAK eskualdean**

deskontuak
RENDA HAUETAN EROSTEGATIK

DATUCELAY

DATUCELAY tailerrak • ELIZONDO

%10eko deskontua bateria eta amortiguadoretan



FOTO MENA

MENA Argazki-denda • ELIZONDO

%10eko deskontua kopia digitaletan



EDURNE Haur Arropa-denda • BERA

%5eko deskontua, 30€tik gorako gastuan



AMAIA Estetika Zentroa • DONEZTEBE

%5eko desk. kosmetikan, %10 oparietan



KIROLAK ZELA

ZELA Kirolak • BERA

%5eko deskontua



**ARGIBEL
OPTIKA**

ARGIBEL DONEZTEBE/ELIZONDO

%10eko deskontua (antejoju graduatuetan)

SARIDUNAK:

- 1 2 diska (Elkar):
Fausti Juanikorena (Zubieta)
- 2 Ikastolen elk. Argitxo mahai jolasa:
Migel M^a Irigoien (Etxalar)
- 3 Martikoko produktua:
Salbador Antsalas (Etxalar)
- 4 Nafarroa Dinezeko lotea:
Garbiñe Sarasola (Lesaka)
- 5 Txapela Buruan kamiseta:
Saioa Mitxelena (Bera)
Joxe Apeztegia (Ituren)
- 6 Oninart 2 kamiseta:
Blanca Perez (Etxalar)



SENDAVIVA 4 sarrera
Olaia Otxoteko (Lesaka)

AQUARIUM 2 sarrera
Itxaso Barrenetxe (Erratzu)

ORAIN www.ttipi.net
bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!



ttipi txartela rekin beti irabazten da!

11 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
astelehenetik ostiralera
09:00-16:00

Tel: 948 63 54 58

1 LAU LIBURU

Hurrengo itsasgoren zain
Santiago Bidean
Hitzak ogiaren truke
Trianoko gau gorriak

Lote 1

ibaizabal
www.ibaizabal.com

Ttantto
**ZUREZKO
PUZZLEA**

Lote 1

2

Ikastola Elkartea
www.ikastola.net

**3 Txapela
Buruan**

KAMISETA

2 Lote

txapela buruan
14 ibili munduan

Narrika kalea, 18 Donostia 20.003 Gipuzkoa Euskal Herria
Tlf. 943-428299 www.txapelaburuan.com

Mahai-jolasa

4

Kirolez badakit
MAHAI-JOLASA

Lote 1

2 KAMISETA

2 Lote

HARPIDETZA
Argia aldizkariaren
6 hilabeteko harpidetza

2 Lote

ARGIA
www.argia.com

ola
SAGARDOTEGIA

Sagardoaren
**DVD
LIBURUA**

5

Lote 1

ola
SAGARDOTEGIA

www.olasagardotegia.com

oninart .com

www.oninart.com
ote kalea 15 | 31770 Lesaka
948 637 167 - 999 970 678 oninart@oninart.com

6

BI KAMISETA

Lote 1

oninart .com

www.oninart.com

ttipi saskia TTIPI SASKIAren ZOZKETAN JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE

Bidali SMSa idatziz **TTIPI SASKIA** eta zure **IZEN-DEITURA 5767** ra



Lote 1
4 sarrera
2 heldu+2 haur

Aventura y diversion para toda la familia



AQUARIUM
DONOSTIA
943 44 00 99
www.aquariumss.com

Lote 1
2 sarrera

Zozketan parte hartzeko epea: urriaren 2tik 8ra. Irabazleen izenak urriaren 16ko aldizkarian argitaratuko dira. Mezuaren kostea 1.20€ (BEZ gabe). Zure datuak ttipi-ttiparen fitxategian gordeko dira aurrerantzean izanzen diren eskaintzen berri emateko. Zuzenketa edo deuseztatpenen bat egiteko deitu 948 63 54 58ra.

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58

DATUAK...

- Nafarroako Adopzio Familien Elkarteak (AFADENA) *Beraien begiraden mundua* izeneko erakusketa eduki du zabalik berriki Doneztebe eta Elizondon. Laster Lesaka edota Beran zabalduko dutela iragarri dute.
- Zuzen Karraskedo elizondarra elkarteko kidea da eta bikoteak eta biek Ceutako mutiko bat dute adoptatua.
- Gaiari interesatuek Zuzenengana jo dezakete, 606 896843ra deituz. Elkarteko bazkide izateko sei euro ordaindu behar dira hilean.



Zuzen KARRASKEDO ARGAZKIA: G. URDANPILLETA AFADENA Nafarroako Adopzio Familien Elkartekoa

«Mingarria da haurra zenbat kosta zaigun entzutea; ez da erosten»

Goizalde URDANPILLETA

Nolatan sortu zen AFADENA?

Adopzioa egiteko tramiteekin eta behin haurrak hemen daudela sortzen diren beharrekin familiei laguntzeko sortu zen. Hasieran familia gutti ginen baina poliki-poliki gehiago sartu gara eta egun 60 bat gaude barrenean. Ea gehiago izatera iristen garen.

Helburua gehiago zabaltzea da...

Hala da. Nafarroan gutti goitibeheiti 700 bat familia izanen dira adopzio prozesuan edo haurrak ekarri dituztenak. Eskualdeka, ordea, Iruñerrian dago zentralizatua elkarteak. Lizarra aldean ere hasi gara hedatzen, eta inguruan ere gauza bera egin nahi dugu. Familia kopuru jakin batekin, Iruñera joan gabe hemen gauza andana egin ditzakegu.

Zein helburu ditu Elkarateak?

Informazioa eman eta herrialdez herrialde zein tramite egin behar diren adieraztea da helburu nagusia, administrazioaren aitzinean laguntzea. Horrez gain, familien artean topaketak egiten ditugu, baita hitzaldiak eta tailerrak ere. Auniz gara adopzio prozesutik pasatu garenak eta esperientziak elkartrukea ona da elkarri laguntzeko. Na-

«Nazio mailan ere adopzioak egin daitezke eta gure kasua horietako bat da. Gure semea Ceutakoa da. Edonola ere, nazionala erranagatik, Senegalgo azal beltzeko bat toka daiteke»

farroako Gobernuarekin ere lanean ari gara, hezkuntza protokolo bat lantzeko. Izan ere, orain arte, nazioartetik ekarritako haur bat bere adinekoekin sartzen zen ikastetxean, hemengo hezkuntza ezagutzen ez duela eta agian bere herrian hezkuntzarik jaso ez duela kontuan hartu gabe. Orain kasu bakoitza aztertuko dutela agindu digute. Liburutegi bat ere badugu, adopzioari buruzko liburuekin.

Adopzioaz ari garela, Txina, Kolonbia... datozkigu burura, baina estatu mailakoa ere izan daiteke...

Bai, nazio mailan ere adopzioak egin daitezke eta gure kasua horietako bat da. Gure semea Ceutakoa da. Nafarroan sortu eta utziak izan diren haur adoptatuak ere badira. Gainera, estatura kanpotar auniz sartu delako, adop-

zio nazionala azkartu egin da. Edonola ere, nazionala erranagatik, Senegalgo azal beltzeko bat toka daiteke. Zeinek ematen ditu buruhauste haundienak?

Nazioartekoak. Bietan egokitasun ziurtagiria eskuratu behar da, Nafarroako Gobernuak eskatzen dituen baldintzak betez: hitzaldi batzuetara joan, galde-tegi bat bete... Gurasoen perfila aztertzen dute eta ikastaro horietatik ziurtagiri bat ematen dute. Horrez gain, herrialde bakoitzak bere baldintzak ditu: Errusiara, adibidez, hirutan joan behar da, Kolonbiara behin... Haurraren sorteriak markatutako segimendua ere egin behar da: psikologoak haurra ikusi eta txostenak igorri behar ditu jaioterrira.

Psikologikoki eta ekonomikoki gogorra da?

Psikologikoki batez ere luzea da. Eta ekonomikoki gastua den arren, mingarria da haurra zenbat kosta zaigun entzutea. Haurrak ez dira erosten, ez saltzen. Tramiteak, bidaiak eta hango egonaldia dira ordaintzen direnak. Haurra besoetan hartzen duzunean, aitzinetik pasatutakoa atzundu egiten da, momentu zoragarria da.



ARGAZKIA: G.PIKABEA

Laster hilabetea beteko da neska-mutikoak eskolan hasi zirenetik. Batzuk lehen aldiz joan dira eskolara eta horixe da, hain zuzen, argazkian ageri direnen kasua. Etxalarko eskolako ttikienak dira.

4.645 ikaslek hasi dute ikasturtea eskualdeko ikastetxeetan

Ikastetxeetako matrikulazioak goiti egin du nabarmen

Udako oporrak bukatu eta irail hasieran hasi zuten haur eta gazteek 2008/2009 ikasturtea. Guztira 4.645 ikaslek ekin zioten ikasturteari Baztan, Bortziriak, Bertizarana, Malerreka, Leitzalde, Urdazubi-Zugarramurdi, Sara eta Senperen. Hasi ttikienetik eta 18 urte bitarteko ikasle gehiago daude aurtengo kurtsoan matrikulatuta. Gorakada kasu guztietan eman bada ere, batez ere, Haur eta Lehen Hezkuntzan nabaritu da. Haur Hezkuntzan, erraterako, %51,16 egin du goiti matrikulazioak eta Lehen Hezkuntzan %31,36. Gisa berean, aitzineko urteetan Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan izandako beherantzako joera alde batera utzi, eta gorako bidean hasi da ikasturte berria. Konparazioa egiterako orduan, duela sei urteko datuak hartu dira kontuan. Dena den, aipatu, orduan ezin izan zirela Senpere eta Sarako datuak lortu, eta beraz, hori ere kontuan hartu behar da. Hizkuntza erduei dagokionean, berriz, D eredia da nagusi. Eta ikastetxe bakan batzuk baino ez dira gaztelera hutsez (A eredia) eta gaztelerez eta euskaraz (B eredia) eskaintzen dutenak.

Gurutze PIKABEA

Ikasle kopuru absolutuak nabarmen egin du goiti, eta aurten guztira iaz baino 283 haur eta gazte gehiago matrikulatu dira ttipi-ttapak hartzen duen eremuan. Duela zenbait urte ikasle kopurua gainbeheran joan zen. Orain, ordea, badirudi horrek buelta eman duela. Herri ttiki aunitzetan egin du goiti matrikulazioak, eta hori jaiotza tasaren igoeraren ondorioz dator.

Ondoko taulan ageri denez, Nafarroa Garaiko gure eskualdean D eredia da nagusi, euskara hutsean ikasten dutenak, alegia. Baina hagitx bertzelakoa gertatzen da Saran eta Senperen. Euskara hutsean ikasteko aukera ikastolek bakarrik eskaintzen dute eta eredu elebiduna edo frantsesa bakarra eskaintzen duen ereduaren azpitik dago. Edonola ere, poliki-poliki bada ere, euskaraz ikasten dutenen kopurua gorantz doa.

2008/2009 IKASTURTEKO DATUAK

HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredia	B eredia	D eredia	A eredia	B eredia	D eredia
BAZTAN	15	0	255	39	0	386
Almandoz IP			6			17
Amaiur IP			11			13
Arizkun IP			23			21
Arraioz IP			4			7
Azpilkueta IP			5			8
Elizondo (S. Fco. J.)	15		76	39		143
Baztan Ikastola			70			85
Erratzu IP			13			15
Gartzain IP			5			9
Irurita IP			24			31
Ornoz IP			15			23
Ziga IP			3			14

BERTIZARANA	0	0	13	0	0	13
Legasa IP			3			3
Narbarte (Arotzenea)			10			10

BORTZIRIAK	2	26	283	14	50	413
Arantza IP			18			25
Bera (Ricar. Baroja)			61			87
Bera (Labiaga Ikast)			50			87
Bera (Jesusen Biho)	2	26		14	50	
Etxalar (Landagain)			30			34
Igantzi IP			24			33
Lesaka (Irain)			60			80
Lesaka (Tanturumair)			40			67


LEITZALDEA	0	0	119	0	0	178
Areso IP			9			11
Goizueta (AN Xalto)			21			34
Leitza (Erleta IP)			89			133

MALERREKA	7	5	148	9	21	217
Beintza-Labaien IP			1			6
Doneztebe (S. Migel)	7	5	108	9	21	145
Ituren IP			14			35
Saldias IP			2			3
Sunbilla IP			23			29

XARETA	77	131	78	216	202	75
Sara (Publikoa)	1	21		1	43	
Sara (St. Joseph)		30		49	25	
Sara (Olhain Ikast)			25			25
Senpere (Publikoa)	27	50		57	97	
Senpere (Amotz publ.)	14			36		
Senpere (St. Joseph)	35	30		73	37	
Senpere (Ikastola)			41			29
Urdazubi-Zugarram.			12			21


Guztira	101	162	896	278	273	1.283
----------------	------------	------------	------------	------------	------------	--------------

HAUR HEZKUNTZA
3-5 urteak



% 51,16

LEHEN HEZKUNTZA
6-11 urteak



% 31,36

Datu iturria:
• Ikastetxeak

2008-09 Guztira **1.159**
2002-03 Guztira **566**

2008-09 Guztira **1.834**
2002-03 Guztira **1.259**

Hizkuntza ereduaren azalpena

- A eredia:** Irakasgai guztiak erdaraz daude, euskara irakasgaia izan ezik.
- B eredia:** eredu mistoa. Berako Jesusen Bihotza ikastetxearen kasuan, euskaraz ematen dituzte irakasgai guztiak 2 izan ezik.
- D eredia:** Irakasgai guztiak euskaraz ematen dira, erdara irakasgaia izan ezik.

BIGARREN HEZKUNTZA / KOLEGIOA

>16 urteak **BIGARREN HEZKUNT.**

BAZTAN	48	0	243
Lekaroz-Elizondo	48		243

BORTZIRIAK	18	32	208
Arantza IP			3
Bera (Toki Ona)	18	32	171
Bera (Labiaga Ikast)			34

LEITZALDEA	0	0	140
Goizueta (AN Xalto)			11
Leitza (Amazabal)			129

MALERREKA	8	0	165
Doneztebe (Mendaur)	8		165

XARETA	190	0	5
Sara			
Senpere (Arratxea)	190		
Urdazubi-Zugarram.			5

Guztira	264	32	761
----------------	------------	-----------	------------

2008-09 Guztira 1.057
2002-03 Guztira 1.000
% 5,4

BATXILERGOA

>16 urteak

BATXILERGOA

BAZTAN	12	0	114
Lekaroz-Elizondo	12		114

BORTZIRIAK	0	0	74
Bera (Toki Ona)			74

LEITZALDEA	0	0	57
Leitza (Amazabal)			57

Guztira	12	0	245
----------------	-----------	----------	------------

2008-09 Guztira 257
2002-03 Guztira 243
% 5,6

HEZIKETA ZIKLOAK / LIZEOA

>16 urteak

HEZIKETA ZIKLOAK
Pipe/Pip Erdi Maila Goi Maila

BAZTAN	20	76	16
Lekaroz-Elizondo	20	76	16

BORTZIRIAK	22	12
Bera (Toki Ona)	22	12

XARETA	192
Senpere (Laboran. lizeo)	192

Guztira	20	98	220
----------------	-----------	-----------	------------

2008-09 Guztira 338
2002-03 Guztira 144
% 57,4

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olgarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Amaia Odrizola, Maite Oteiza, Jaione Otxandoreña, Xan Harriague, Rakel Amigo, Irtxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Espektakulua Lesakako udal politikan

Azken hauteskundeak geroztik Lesakan pasatzen ari dena ikusita aukeratu dut izenburu hori artikulua honentzako. Karguak hartzerako momentuan adierazi genuen, Udal Gobernuaren osaketa berria ez zela ona herriarentzat, ez zelako herriaren erabakia ordezkatu eta Lesakari benetan komeni zaiona kontuan hartu ordez, gorroto eta ezinikusiak hartu zirelako kontuan.

Hasieratik dimisioak eta bertze gorabeherak izan genituen, ordua ai-

legatutakoan bete ez ziren hitzemate aunitz egon ziren; eta duintasun pixka bat eduki zutenek ezin izan zuten defraudatutakoan presioa jasan. Herrian ia denok ezagutzen dugu elkar, baina batzuek harritzen segitzen gaituzte.

Joan den irailaren 24an Lesakako historian inoiz ezagutu dugun espektakulu handi eta lotsagarrienaren lekuko izan ginen. Urte guzian EA utziko zuela iragarri ondotik, abuztuan ere idatziz aurkeztu eta Diario de Navarra egunkarian egindako deklarazioetan ere hala adierazi ondotik, Carlos Ayala jaunak ez da-

kit zein udal talderekin ezadostasunak zituelako baja emateko aurkeztua zuen erabakian gibelera egin zuela erranez idatzi bat aurkeztu zuen.

Gurea bezalako herri batean ez da horrelako antzerki, iragarki eta prentsako erreportajerik behar politika egiteko.

Gobernu honek alkatetzarako 41.000 euro onartu zituen atzera eraginezko izaeraz, legealdirako 164.000 euro gehiago, lehenagoko 27 milioi pezeta. Horiek galdu aitzinetik, presioak, pertsekuzioak eta abar nola asmatuko dituzten ikusiko dugu.

Baita zerbait okerrago ere boterean segitzeko baldin bada. Bitartean, Lesakako herriaren oinarriko beharrek bete gabe segituko dute, bertzeak bertze, gazteen-tzako Babes Ofizialeko Etxebizitzak. Baina berdin dio, Erdi Aroko Azoka bezalako ekitaldi folklorikoak izanen ditugu, eta Nafarroako Gobernu Landa eta Ingurumen Departamentuaren baimenik gabeko zuhaitzen mozketak ere bai.

Juan Fermin
Mixelena

Lesakako EAJ-PNV

Aukera ezazu **ttipi-ttapa** laguntzeko proiektua

can  NAFARROAKO KUTXAren

Zeuk aukeratzen duzu,
zeuk erabakitzen duzu

Proiektu zka.: 14640

Ttipi-Ttapaaren tresneria berritzeko laguntza

Aurrerakuntza teknologikoen gizarte osoa behartzen dute ekipamendu teknologikoak eta informatikoak gelditu gabe berritzera. Fenomeno hori oraindik nabarmenagoa da TTIPI-TTAPAren moduko lantegi ttiketian, izan ere, gure eguneroko lanak zerikusi zuzena baitu Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriekin (IKTB). Hala, biziraupen teknologikoen aldeko ahaleginak buruhauste handiak sortzen dizkigu, ez baita batere erraza tresneria berriak erosteko beharrezkoak diren diruak bilatzea. TTIPI-TTAPAK aldizkaria, telebista eta internet bidezko egunkari digitala kudeatzen ditu. Hiruen artean telebista da, zalantzarik gabe, inbertsioak egiteko premiarik handiena duena kontuan hartuz, batez ere, telebista analogikoa izatetik digitala izatera behartuak gaudela.

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



DIARIO DE NAVARRA, 2008-09-26

«Lehendabizi Onin errekaen zatirik altuenera joanen gara, zaborra handik ekartzen baitu korronteak (...). Ekimena ez da Udalarena baina eredu egokia dela aldarrikatzeko etorri naiz (...). Errekak garbi mantentzeko ideia Aizkolegi boluntario taldearena da. 2000an eratu zen eta Bidasoa aukeratu zuen (...). Garbiketa hau normalean urtean behin egiten da eta noizbait hainbat herritan aldi berean ere egin izan da».

Belen MUTUBERRIA
Lesakako Kultura eta Turismo Teknikaria
D. Navarra, 2008-09-26

«Lehen urtea uste nuena baino askoz hobea izan da. Inondik ere ez nuen espero partida nagusiak jokatuko nituenik, eta are gutxiago txapelketa. Dena den, denerarik izan ditut, une gozoak eta gaziak. Ondo hasi nintzen, ondo jokatuz; gero, baina, txakalaldia izan nuen, nahiko sakona, gorputzaldi txarra nuen, ez nengoen gustura. Eta orain, azken 15-20 partidan, gora egin dut. Azken bolada honetan partida batzuk galdu ditut, baina beste itxura bat eman dut».

Mikel OLAZABAL
Aresoko pilotaria
Berria, 2008-09-17

• 11 GALDERA LABUR •

Zer du Goizuetak bertze herriek ez dutena?

Puf! Ura ona!

Nongoa da Artikutza?

Jendeak Donostiakoa dela esaten du, baina nik uste dut Goizuetakoa dela.

Pilotan banaka edo binaka mol-datzen zara hobeki?

Binaka.

Aimarren marka hobetuko al du inork Goizuetan?

Ez dut uste. Benjamin mailan ari diren batzuk pilotari onak heldu dira baina Aimarren marka hobetzea zaila da.

Pilotan ez ezik, ikasten ere ari zara. Zer moduz?

Oso gaizki!

Besta egin, pilotan ari edo ikasi. Zer duzu nahiago?

Pilotan ari eta besta egin. Ikasi ahalik eta gutxien.

Pilotariek aunitz ligatzen dutenaren fama dute. Zure kasuan ere bai?

Ez, ez. Nik arront gutxi ligatzen dut!

Noiz ikusiko zaitugu profesio-naletan?

Oraindik ez behintzat!
Zaila dago kon-tua.

Ametz bat?

Dudik gabe, profesioaletara pasatzea eta txapelen bat lortzea. Hori da pilotari afizionatu guzien ametsa.

Loterian 500.000 euro tokatuz gero, zer?

Lehenbiziko gauza kotxeko karneta aterako nuke, eta kotxe on bat erosi abudo.

Azken aldian maiz agertzen ari zara ttipi-ttapa aldizkarian...

Jendea **ttipi-ttapa**ko sozioa ote naizen galdetzen ari zitzaidan eta hara, orain berriz. Esango du orain ere jende-ak zerbait!



Oier APEZETXEA
Goizuetako pilotaria

edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak



Mantetan eskaintzak

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

BERA

Mikologiari buruzko V. jardunaldiak egingen dira asteburu honetan

Ehiza eta Arrantza Elkarteak hitzaldia, mendi ateraldia eta erakusketa antolatu ditu

ttipi-ttapa

Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatuta, Mikologiari buruzko jardunaldiak egingen dira ortziral honetatik igandera.

Ortziraletan, urriak 3, 19:30ean mikologiaren hastapenei buruzko hitzaldia eskainiko du Pedro Arrillaga Anabitarte Aranzadi Zientzia Elkarteak kideak. 19:30ean izanen da.

Larunbatean, urriak 4, goizean goiz hasiko dute eguna. 08:00etan mendira aterako dira onddo bila, Altzateko Plazatik abiatuta. Biltzen diren onddo eta perretxikoak Ehiza eta Arrantza Elkartera ekarriko dira. 11:00etatik 13:00etara Elkartean egonen dira.

Igandean, urriak 5, erakusketa izanen da. Onddo eta perretxikoak izanen dira ikusgai, hauek ere Elkartean. 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara egonen da erakusketa zabalik.

Laguntza zahar-etxearentzat

Nafarroako Gobernuak San Jose Zahar-Etxearentzako dirulaguntza onartu du ur be-

roaren depositu-metagailu bat arauetara egokitzeko eta deien kontrol sistema bat instalatzeko. Lanak 50.065,30 euro kostako dira, eta Nafarroako Gobernuak gastuaren %80a subentzionatuko du, 40.052,24 euro.

Zabor erakusketa

Irailaren 22an etorri zen Bortzirietara Nafarroako Hiri Hondakinei Buruzko Erakusketa Ibiltaria. *Helburua: Birzi-*

klatzea izeneko erakusketa hondakinak kudeatzen dituzten Nafarroako Mankomunitate eta udaletan egiten ari dira eta Etxalar, Lesaka, Igantzi eta Arantzan barna ibili ondotik Bera hurrengo astean ailegatuko da. Urriaren 7an zabalduko dute eta urriaren 10era arte egonen da. Kultur Etxean izanen da, 9:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Erakusketaren helburuak bi dira: ezagu-

tza eta sentsibilizazioa indartzea mankomunitate bakoitzean hondakinak jasotzeko dauden sistemen inguruan, eta ongi funtzionatzeko laguntza ezinbertzekoa dela azpimarratzea.

Komikigintza tailerra

Joseba Larratxe komikigilearen eskutik, komikigintza tailerra egingen da urriaren 11n, 18an eta 25ean Kultur Etxean. Bortzirietako Euskarra Mankomunitatearen

eta Topagunearen ekimena da eta ikastaroa 11:00etatik 13:00etara emanen da. Izen ematea urriaren 6tik 10era bitarte egin beharko da, 948 634125 telefonora deituta edo *euskara@bortziririak.org* helbidera idatzita.

Atentatu eta legekanporatzeak gaitzetsi ditu Udalak

Aitzineko asteetan Gasteizen, Ondarroan eta Santoñan (Kantabria, Espainia) gertatutako ETaren atentatuak gaitzesteko eta EAE-ANV eta EHAK alderdien eta Amnistiaren Aldeko Mugimendua legez kanpo utzi izana salatzen mozia onartu dute Berako EA, EAJ eta Aralarrek. Irailaren 22an ezohiko osoko bilkuran, hiru alderdien botoekin onartutako mozia da (EAE-ANV abstenitu egin zen). «Urraketa horien guztien kontrako jarrera irmoa agertzen dugu, eta Euskal Herriak zein euskal herritarrek etengabe eskatzen duten bakea eta normalizazio politikoa lortzeko ahalegin berezia egin beharrean gara guztio», dio moziok.



ARGAZKIA: GOIKO

Dantzari Ttiki Egunaren XIV. edizio arrakastatsua

Giro ederrean joan zen irailaren 20an egin zen Dantzari Ttiki Egunaren XIV. edizioa. Gure Txokoako dantzariekin batera, Legazpiko Korosti dantza taldekoak, Zaldibiko Iztueta taldekoak eta Ibarako Alur dantza taldekoak aritu ziren dantzan herriko karraketan. Goizean goizetik ibili ziren batera eta bertzera dantzariak eta etxeetan bazkaldu ondotik, arratsaldean ere segida izan zuen bestak, baina dantzatu ordez, jokuetan ibili ziren neska-mutikoak.

ERREKALDE
PLATER KONBINATIONAK
OSTAIA
PINTXOAK
BOKATEK
TFNoA: 948 630 259 BERA

LABEZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

arropak · maindireak
mantak · nordikoak
toallak · kortinak
alfonbrak
Goya
Bera
Altzate, 5 · Tel: 948 630 083

Xirgill
Altzate 1 · BERA
Tfnoa: 948 631 462

LESAKA

Juan Carlos Ayalak Eusko Alkartasunako zinegotzi izaten segituko du

Independiente gisara segitzeko asmoz idatzia aurkeztua zuten

Aitor AROTZENA

Juan Carlos Ayalak EAko zinegotzi izateari uzteko eta independente gisara segitzeko eskaria aurkeztua zuten Herriko Etxean. Hone-la, Udal Gobernu Batzordea gehiengorik gabe geldituko litzateke. Irailaren 24ko udal batzarreko gai-ordenean sartua zegoen Ayalaren eskari hori, baina azken orduan erabakian gibelera egin eta Eusko Alkartasunako zinegotzi bezala segituko duela jakinarazi zuten pleno horretan.

Ayalaren hasierako asmoa komunikabideetara ailegatu zen eta horrek zer erran ugari ere sortua zuten. Izan ere, Udal Gobernu Batzordea gehiengorik gabe geldituko litzateke. Juan Carlos Ayalak prentsa-ri adierazitakoaren arabera, EAko taldearekin ezadostasunak zituen. Halere, irailaren 24ko plenoan aipatu zuenez, «Lesakako bertze udal taldeekin zituen arazak» izan ziren errenuntzia aurkezteko arrazoia,

baina herriko nahiz Nafarroako EAren babesia jaso du Herriko Etxean lanean segitzeko eta ardura horri eutsiko dio.

Memoria tailerra

Hirugarren adineko-
ei zuzendutako memoria tailerra eginen da urrian, azaroan eta abenduan Antoiu 27ko bigarren solairuko udal aretoan. Asteartetan, 16:00etatik 17:30era emanen da ikastaroa. 10 euroren truke, izena emateko epea urriaren 1ean akautuko da, 661 345639 telefonora deituz (Ramoni).

Futbolera- nesken bila

Beti Gaztek nesken futbol taldea osatzeko jokalaririk behar ditu. 1992a baino lehen jaiotakoek handien taldea osatuko lukete eta gerostik jaiotakoek ttikien taldea. Beraz, Mastegi-ko entrenamenduetara agertu edo Beti Gazte-ko edozein kiderekin solastea aski dute futbol-lean aritzeko gogoia duten neskek.



ARGAZKIAK: AITOR A./AITOR A./JUANJO GUERRERO

Kirol ekitaldiz ongi hornitutako iraila joan da
Irailaren 12an Gazte Asanbladak bigarren aldiz antolatutako futbito txapelketaren finala luzapenean irabazi zion Erretiradik (Iaranjaz) Ziharkari. Bihamunean, Begibana herri kirol txapelketa irabazi zuten Beti Gazteko nesken taldeak, Gasteizko Badaiotz eta Oiartzungo Girizari irabazita. Irailaren 21ean, 94 txirindularik parte hartu zuten Mendi Bizikleta Ibilaldian.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

GOJZ-AIIDE
JANARDENDA
Bititira 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
ZAHARRA
JATETXEA
T. 948 637 260 • LESAKA

IRU BIDE
Erretegia - Asador
Burrana, 3 - Lesaka
Tel: 948 637 127

MERTZERIA
Deñe
LENTZERIA
Tel: 948 627 514
Beheko Plaza, 10 - LESAKA

ETXALAR

Ehiza postuen enkantean hika-mika frankorekin hasi da aurtengo ehiza sasoia

Aspaldiko urteetako diru-kopururik ttikiena lortu du Udalak, 42.280 euro

Joseba eta Nerea

Urriaren lehenean hasi zen aurtengo ehiza sasoia eta, aitzinetik, urtero bezala, ehiza postuen subasta egin zen. Aurtengo enkanteak katramila dexente ekarri ditu, ehizturiak ez baitira ados agertu Udalak hartutako hainbat erabakirekin. Horiek medio, lehenbiziko subastan, irailaren 6an, enkantean ateri ziren 22 postuetatik 15 bakarrik hartu zituzten. Ehizturiak euren haserrea erakusteko, ez zuten postu bakar baten irteerako prezioa hobetu, eta postu guztiak ateratako diru kopuru berean hartu zituzten. 7 postu eman gabe gelditu ziren.

Ehizturiak aste beteko epea zuten postuei sesta emateko eta postu bakarrari eman zioten, 24 zenbakidunari. Irailaren 16an egin zen bigarren subastan sesta emandako postu hori eta eman gabe gelditu ziren bertze zazpiak atera ziren berriro en-

kantean. 24. postuaren irteerako prezioa 1.007 eurokoa zen, baina enkantea bukatutakoan 3.064,83 eurora altxatu zuten prezioa. Irteerako prezioa 3 aldiz hobe zuen.

Eman gabe gelditu ziren postuak berriro ateri ziren subastan eta denak hartu zituzten bi izan ezik, 4. sarea eta 21. postua. Horregatik, aurtengo Udalak subastatik aterako duen diru kopurua azken urteetako baxuena izan da, 42.280 eurokoa.

Kultur Etxean igogailua

Joan den urtean Nafarroako Kutzaren *Zuk aukeratu, Zuk erabaki* egitasmoaren barranean, Udalak Kultur Etxean igogailua paratzeko proiektua aurkeztu zuen eta Kutxan kontua duten herritarren laguntzarekin, proiektua martxan dago dagoeneko. Lortutako diruarekin, aste honetan hasiko dira igogailua

egiteko obrak, 20.000 euroko aurrekontuare-

kin. Omega igogailu enpresak egingen ditu la-

nak eta azaroan akabatzea espero da.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bisita gidatuak Usategietan

Uso-denboraldia hasterekin batera, urtero bezala, turista eta bisitari pararra etorriko dira Iharmendiko gainera, parajeak ikusi eta Usategietako ehizatze modu tradizionala ezagutzera. Hauetan pentsatuz, azkeneko urteetan bezala, bisita gidatuak paratu dira martxan, ibilaldi bereziekin eta Usategien inguruko informazio osatuarekin. Urriaren 1etik hasita, azaroaren 20ra arte, egunero izanen dira bisitak, astetartez goizetan, eta aste hondarretan goiz eta arratsalde. Ordu puntuetan izanen da aukera bisitak egiteko eta telefono bat ere paratu dute hitzordua aitzinetik hartu nahi dutenentzat, 690 267756 (Laura). Pertsona bakoitzak 4 euro ordainduz egiten ahalko du ibilbidea, eta 10 lagunetik goitiko taldean joanez gero, 3 eurotan bakoitzak. Bisitak euskaraz eta gaztelaniaz izanen dira, aukeran.

saroha
gozategia okindegia

pl. de eztegarra 25 bajo
31780 bera (navarra) 1.948 63 08 99
www.sarobe.net

USOA
nekazari kooperatiba

ganaduarentzat
pentzurik egokiena

Tel: 948 635 214 · ETXALAR

Javier Manterola
Tecniko instalatzailea

iturgintza · gasa
kalefakzioa

Tfnoa: 629449602 · BERA

m

bentamiguel
denda, jatetxea eta ostatua

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdategia

Ibardingo Lepoa · ☎ 948 631 209

ERROTAZAR
harategia

Bertako
produktuak

Eztegarra, 3 · BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

IGANTZI

Peio Segurola azpeitiarra eta 'Artzai' garaile Artzain Zakur Lehiaketan

Bertzalde, Gazta Lehiaketan Juxta Sein nagusitu da

ttiipi-ttapa

San Migel besten aitineko asteburuan egin zen aurten ere Artzain Zakur Lehiaketa. XXIX. edizioa izan zen aurtengoa eta Euskal Herriko Artzain Zakur Lehiaketa egun berean tokatu zela kontuan hartuz, parte-hartze polita izan zen.

Zortzi bikote aurkeztu ziren irailaren 21eko lehiaketara eta eguraldia lagun, aitineko aldietan baino jende gehiago hurbildu zen. Guztien artean Peio Segurola azpeitiarra eta *Artzai* bere zakurra nagusitu ziren. Amaiurren ere bikote hau atera zen garaile. Bigarren postua Lapurdi aldera joan zen, eta Jean Paul Irikin eta *Itzar* zakurrarentzat izan zen. Hirugarren, berriz, Felix Irigoien baztandarra eta *Peio* zakurra gelditu ziren. Lehen hiru hauek izan ziren proba guztia osatu zuten bakarrak.

GAZTA LEHIAKETA

Egun berean egin zen Gazta Lehiaketaren bortzgarren edizioa ere. Iaz bezala, guztira 12 gazta aurkeztu ziren eta antolatzaileek denen maila altua azpimarratu zuten. Epaimahaiak Txoritokiko Juxta Seinen gaztari eman zion lehenbiziko saria; bigarren saritua Agertxeberriko Frantxiska Apeztegia izan zen eta Arginenbordako Carmen Larralde gelditu zen hirugarren. 100, 75 eta 50 euro jasoz zituzten, hurrenez hurren, eta horrez gain, trofeoa eta saski bana ere bai.

DANTZA SAIOA

Bezperan ere, irailaren 20an, izan ziren ekitaldiak, eta horien artean herriko dantzarien emanaldia. Haur zein gazte, denak aritu ziren dantzan eta guztira 21 dantza eskaini zituzten. Jende andana hurbildu zen saioa ikustera.



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA ETA OSKAR TXOPERENA

Besten aitineko asteburuan egin ziren ekitaldietako irudiak ageri dira: herriko dantzarien saioa; artzain zakur lehiaketa eta gazta lehiaketako saridunak.



14 logela bainu eta TBrekin

Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

J. RAMOS
zolak akutxilatatu eta barnizatzen ditut
Sakelekoa: 637 836 023 · LESAKA

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitoprenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarrtasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

ARANTZA

Euskara Batzordeak ortziral honetarako bilera deialdia egin du

16:30ean Herriko Etxeko lehenengo solairuan hitzordua jarria da

Nerea ALTZURI

Udako hilabeteak pasatu eta gero, Arantza-k Euskara Batzordea lanean hasi da. Iraileko bileran lagun gehiegirik bildu ez bazen ere, ortziral arratsalde honetarako bertze bilkura bat egiteko deia egin da. Uda osteko iraileko bileran aipatutako eta lotu gabe geraturiko zenbait puntu jorratuko dituzte aldi honetan. Normalean, herriko elkarte ezberdinetako ordezkariak nahiz interesa duen edozein herritarrek parte hartzen dute. Batzordea irekia da, nahi duen oro agertzen ahal da hilabetero egiten den bilerara. Denboraldi honetako gaien artean, udazkeneko Kultur Eguna daude eta hortaz behar bada behin baino gehiagotan bilduko dira batzordekideak, ekitaldi horiek lotu behar direlako. Beraz, hurrengo bilera ortziralean, urriak 3, 16:30ean udaletxean.

Haur Txokoa

laz ludoteka izena hartu

bazuen ere, funtsean helburu eta eginkizun berberak ditu Haur Txokoa. Bortziritako Euskara eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen mankomunitateek antolatuta abendura arte egitekoa da. Haurren denbora libre era dibertigarri eta hezitzaile batean jostatuz eta euskaraz pasatzeko helburua du. Bidenabar, gu-

rasoen faboretan izaten da. laz ere, goizeko ludoteka zerbitzuaz gainera, arratsaldean eduki funtzionatu zuen ekimen honek.

Herriko Haur Txokoa astearte eta ortziraletan egiten da 16:00etatik 17:30era ohiko lekuan. Eskaintza printzipioz abenduaren 22ra arte izanen da.

Guraso Elkarteak

Bi urtetik behin aldatzen da eskolako Guraso Elkarteak. Ikasturte hasierarekin batera, hiru ordezkariak beuren lekuko guraso berriei pasa diete.

Belen Mutuberria presidentea da; idazkaria Edurne Iparragirre; elkarteakideak Begoña Bergara, Mari Anjeles La-

rralde, Beatriz Taberna, Koldobike Gorostiza eta Josune Otxandorena. Azken hirurak berriak dira, Ester, Marikamen eta Mariadok bi urte beuren arduetan pasa ondok, txanda pasa diete. Beatriz eskola kontseiluko gurasoen ordezkaria da; Koldobike elkarteko diruzaina eta Josunek diruzainordearen ardura beteko du hurrengo bi ikasturteetan.

Guraso Elkarteak herriko eta eskolako hainbat ekimenetan parte hartzen du. Adibidez, eskolako jantokia antolatzen du. Zerbitzua, urritik abian jarria da. Sagrario Iparragirrek sukaldari jarraitzen du eta Loli Mutuberriak begirale ardurarekin segitzen du.

DIRULAGUNTZA

Ikastetxe publikoentzako laguntzak onartu ditu Nafarroako Gobernuak 2008an egiten diren eskolaz kanpoko ekintzetarako. Hala, herriko eskolak 439,78 euro jasoko ditu.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Hasi da ehiza denboraldia

Urrirua hastearekin batera, Ekaitza eta Bagatxar mendi gainetan mugimentua nabari da ehiza denboraldia dela-eta. Ehiztariak aurten ere ez diote hutsik egin urteroko hitzorduari. Argazkia Aientsa auzotik Bagatxar aldera ateratakoa da.

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

LEGARRA

ESKOLAKO MATERIALA
PRENTSA

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

Ituzia
Larrazteko jardineria

HIDROEREINTZA
kimaketak
zerrakurak
mantenimendua

HIDROSIEMBRA
podas
cierres
mantenimienta

Zuhaitzak arboles
Zuhaitzak arbutus

666 407 214
948 631 199

FERMIN MARITORENA
LARRALDEA

Hegaldia kanra, 33 • 31780 BERA (Nafarroa)



mirentxu



Markarik onenak:
Boboli, Schuss,
Paz Rodriguez,
Deskizio, Akr, Exit
Dodipeto

30 marka baino
gehiago, prezio
guztietakoak

Bertan eskuz
egindako soinekoak

Leotardoak, galtzerdiak,
oinetakoak, seaskak

Serapio Mugika, 15
IRUN • 943 618 033

Ordizia kalea, 5
ORDIZIA • 943 881 273

MIRENTXU: Kupoi honekin
%5






HAURRAK

Arropa erosoak eta deigarriak

Haurren arropak dinamikoa izan behar du, jostatzen ari denean eroso senti dadin. Koloreei dagokienean, berriz, deigarriak izaten dira. Aurtengo denboraldian hiru sail bereizi dituzte adituek: hostoak, ura eta egurra. Jantziek duten kolore naturalaren adierazle omen dira hostoak, ingurumenarekin lotutakoak eta tonu bizikoak, alegia. Arrakasta duten ehunen artean daude, bertzeak bertze, franela, artilea, Galesko printzearen laukiak deituriko estiloa... Neskaiten kasuan, berriz, aunitz ikusiko dira, gonak edo galtza pitiloak, gainetik kamiseta luzeak dituztela.

Eta bigarren sailean ura. Zergatik? Bada, jantzie-tan urdin kolorea ezinbertzekoa delako. Ehunei dagokienean, pana, akoltxatu sintetikoak... ikusiko dira.

Azkenik, egurra deituriko sailean, fukusia, gorria, laranja, petrolioaren urdina edo goroldioaren berdearen arteko konbinazioa nabarmendu dute adituek. Halakoek eskulanaren ukitua ematen omen diote arropari.



MARI CARMEN
Arropa
KONFEKZIOAK

Braulio Iriarte 22
(Antxitonea ondoan)
ELIZONDO
Tel: 948 580 883

Mikkala Bidasoa 41, Bera
Tel. 948 630 560

FANTXIKE Elizondo
Zarrea Urteak, 15

IBARROLA
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 - Donostia
948 450 463

MARKA BERRIAK

tuc tuc Pampolina MINIMAN SEAPORT JUNIOR
PJE coccolino mayoral



Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO
Tel.: 948 580 056

Azken-muga

skunkfunk
www.skunkfunk.com

Dezigual®

Jaime Urrutia kalea 38
31700 Elizondo (Baztan)

Tel/Faxa: 948 581 934
baztan@azkenmuga.net

Astelenerdik 10:30etik 14:00etara
Larunbatara 17:00etatik 20:00etara

HONORIO
TABERNA

Merkatarien karrika, 29 • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 109



BAZTAN



emakumezko eta gizonezko-
en estiloen arteko nahaske-
tarekin ikusiko ditugu ema-
kumeak: larruzko txamarra,
motorzaleen itxura, mao
estiloko lepoa duten jantziak



Lila eta aran kolorearen aukera zabala aurkituko dugu merkaturan, baina horiekin batera beige kolorea, beltza eta moratua ere aunitz ikusiko dira. Tulipanen forma duten berokiak ere ikusiko dira, mauketan bolumen handia dutenak, *tweed* txamarrak, kardiganak gerrikoarekin...

Egunerokoan, jantzi erabilgarri eta erosoak ikusiko dira, eta tartean bakeroak. Neguan kanpai formako galtzak berriz ere modan egonen dira, baina pitilloak ere ez dira tokirik gabe geldituko. Lehenengoek takoi altu batzuekin altu eta argalagoaren sentsazioa areagotzen dute; bigarrenek, berriz, emakume argaletan ohikoagoak dira.

Dotoreago jantzi nahi den momentuetarako ere aukera zabala aurkituko dugu merkaturan. Hala nola, soineko luzeak eta erromantikoak, bolanteekin. Urre-koloreko osagarriak aukeran, luma arrastoak... Gerri-aldea markatua ikusiko da.

Jantzi izar modura, trikotazko soinekoak proposatu dituzte hainbat moda etxek. Edozein botarekin jantzeko aproposak dira, erosoak eta sinpleak. Hori baita azken batean emakumeek nahi dutena, erosoak izatea.

TABERNA ZAHARRA
udazken-neguko moda



Gizon eta emakumeendako arropadenda
Kortinak eta etxerako arropak

Merkatarien karrika, 11
DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 007

IPINGI



Arropa formal eta informala
Konplementuak ■ Bitxiak
Lentzeria

Santiago 58, Elizondo Tel. 948 580 939

Lulu 38tik 64a bitarteko neurriak



Hondarribia kalea, 15 Atzeko aldetik • IRUN
Tel. 943 616 165



ETI CULIA MIXTA
ILKAPAINDEGIA



YOAN
SALON DE BELEZA
ELETTASUNETIKO ARTISTA



SP
System
Professional

SASSOON
PROFESSIONAL

SEBASTIAN
PROFESSIONAL

Tel 948 630 077



Kris
ileapaindegia

Giltxaurdi, 14
ELIZONDO
948 580 025



BL
arropa-denda

urte osoan Bortziriak,
Malerreka eta
Iparraldeko
jendearentzat
%10eko deskontuak



Ibardingo gaina, 30 • BERRA • Tfnoa: 948 630 709



BLEND **amarillo limon**

MAKULAKA

Denboraldiko koloreak

Urdinak, berdeak, bioletak... Horiek izanen dira udazken eta negu honetan begietan ikusiko diren koloreak. Begietan, grisa eta urdinaren arteko nahasketa aditu aunitzen hautua izaten da, eta begirada sakonagoa izan dadin, betilea ongi margotzearen garrantzia ere nabarmentzen dute. Bekain eder batzuen sekretua, berriz, ongi orraztean datza.

Ezpainetako koloreak

Azal argia izatekotan, ezpainak arrosa kolorez margotzeko aholkatzen dute adituek edo melokotoi koloreko tonoe-kin margotzeko, bertzela. Ilegorria bazara, berriz, edo oreztak baldin badituzu, marroia, laranja edo gorritza hautatu. Zure aurpegiaren kolorea zurbilagoa baldin bada, arrosa eta gorri-morearekin probatu, baina gorri deigarririk ez erabili. Azal iluneko bazara, fakzioak leundu behar dira, eta halako kasuetarako, karamelu kolorea eta ezti kolorea egokiak izanen dira egunez ibiltzeko, eta aran kolorea, berriz, gauetarako.

Koloretea

Koloretea ere azal kolorearen arabera hautatu beharrekoa da. Azal argia denetan, erraterako, tonu arrosa eta melokotoi argi kolorea egokiak dira. Aitzitik, azal ilunagoa dutenek, aran kolorea eta arrosa urreztatua erabil dezakete.



MODA



maria ileapaindegia
manikura • makilajea • errazkerak
Ileapaindegia 948 450 922
Estetika 619 533 694



ainhoa
estilista
RUTH ILEAPAINDEGIAN



AURPEGI DEPILAZIOA,
SOLARIUM,
SPRAY SOL,
MAKILAJEA,
MANIKURA,
ILE BILDUAK,
TRATAMENDUAK,
ILE-LUZAPENA

Bittiria 59 • LESAKA
948 637 436



lilura
ileapaindegia



Rosa Seminario 17 • DONEZTEBE
Tel.: 948 451 951

KOLEKZIO BERRIA



Lois puma **BOSS**
JEANS & JACKETS HUGO BOSS

Levi's

REPLAY
BLUE JEANS

GUESS
BY MARCIANO

Motto Kitty

BURBERRY TOMMY
HILFIGER

FREEMAN PORTER

LAPITXURI

Dantxarinea

948 599 311

BIOK

Ibardin

948 630 558

XABI

Arnegi

948 790 076

Ireka egunero 8:15 - 19:15 Asteburuetan 9:00 - 20:00



GIZONAK

Gizon langilearen itxura hartuko du udazken-neguko modak

Langileen estilo klasikoa eta baldintza klimatiko gogorretan lan egiten duten gizonak bezala. Horrelaxe jantziko dira udazken-negu honetan gizon-nezkoak.

Zenbait diseinatzailek abrigu barru-bigun eta larruzkoen aldeko apustua egin dute eta horrekin batera, artilezko txano, eskularru eta txalekoak ere erabiliko omen dira.


Oinetakoei dagokienean, berriz, lokarridun botak nagusituko dira.

Langilearen estiloa eramateko bertze proposamena, frantzezko atorrak eta marinelaen estiloko edo laukidun zamarak janztea izanen da.



Skunk funk

Billabong



Quick silver

Rip Curl



Dragon
Oxbow

Animal



Loreak Mendian

IBARDIN 948 630716



MENDIBIL
Merkatal Zentrua
20302 IRUN
Tel 943 624 672



MERCHE
MODA HOMBRE

Serapio Mujika, 11
20302 IRUN
Tel. 943 612 626





OSIÑA
Jantzidenda
Bitxiak



Albistur, 3-behea • LESAKA • Tfnoa: 948 637 951

Langilearen estilo hori nagusituko denez, korbatak ia ez dira ikusiko. Korbataren tokia kolore iluneko bufandentzat izanenda. Edo kolore ilunekoak ez badira, kontrastea sortze aldera, deigarriak diren urdin koloreko bufandak ikusiko dira.



bixkiak
arropa denda
KIROL ETA MODAKO ARROPA DENDA



Arretxea, 7 B2 • LESAKA • 948 638 110

CALZADOS OINETAKOAK



Larunbat
arratsaldetan
IREKIA

948 580 209 • ELIZONDO



Oinetako moderno eta berritzaileak

Udazken eta negu honetako oinetakoak modernoak eta berritzaileak izanen direla iragarri dute diseinatzaileek. Neguko ohiko koloreetan oinarrituz, manoletinetan aukera zabala izanen da: **gorri-more**, **berde**, marroi, beltz... Lokarri, kristal eta bertzelako apaingarri metalikoekin dekoratuta etorriko dira, diseinu berritzailearekin.

Zapatak, botinak eta botak punta borobil edo laukidunak dituztenak izanen dira, eta ispiluaren efektua egiten duten takoiak edukiko dituzte, **zilar** edo **urre** kolorekoak. Dena den, takoirik gabeko oinetakoak ere erakusleihu guztietan egonen dira salgai.

Goma zuri-beltza duten plataformak ere ikusiko dira botetan, botinetan zein zapatatetan. Eta egun euritsueterako, ehun iragazgaitzarekin eginak izanen dira.

Motorzaleen estilora hurbilduz, itxura zaharkitua duten larru iluneko bota eta botinak ere ikusiko dira, tatxet, harribitxi edo hebilladunak.

Emakumezkoen artean, aretozapatak deiturikoak ikusiko dira, orkoi finagoekin, plataformak, takoi altu eta punta zorrotz borobilekin.

Gizonezkoen oinetakoetan, berriz, erosotasuna nagusituko da, eta diseinu klasikoa: lokarri oinetakoak. Halere, ausartenak ditzira eta txarolaren aldeko hautua egingen dute. Egunerokoan erabiltzeko kiroletako oinetakoak erabiliko dira batez ere, marroi, beltz eta gris kolorekoak. Zenbaitetan metalizatuak ere bai.



txinelka
ZAPATADENDA

UDAZKEN-NEGUKO MODA
haurrak · gaztetxoak · helduak

larunbat
arratsaldetan
irekia

Arretxea 20, LESAKA · Tel. 948 637 594

Parokia 17
DONEZTEBE
Tel-Faxa: 948 450 289
costiz@telefonica.es

CASA OSTIZ

ZAPATADENDA · TABAKODENDA
LIBURUNDENDA · PAPERTEGIA

yelos
YOUNG

deskontuak

Hemen ageri diren komertzio eta zerbitzu guztietan erabil dezakezu



ttipi-ttapa laguntzeak BADU SARIA

DESKONTUAK. Hemen ondoan ikusten dituzun deskontu eta abantaila guztietaz aprobetxatzeko, **oroitu TXARTELA beti sakelean** eramateaz, **dendariari erakusteko** Nortasun Agiriarekin batera.

ZOKKETAK. Urte oso-osotan, hama-bostetik behin, hamaika zokketa eginen dira. Horien berri emanen dizugu ttipi-ttapa aldizkarian, ttipi-ttapa telebistan eta www.ttipi.net webgunean.

ALDIZKARIA DOHAINIK. TXARTELA erosten duenak **dohainik** hartuko du etxean **ttipi-ttapa aldizkaria**.

Eta jakinzazu TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA-ri eman dizun diru kopuruaren **%20a desgrabatuko** zaizula heldu den urteko **Errenta Aitorpenaren kuotatik**. Horretarako, heldu den urte hasieran igorriko dizugu etxera Errenta Aitorpena egiterakoan aurkeztu behar duzun **Ziurtagiria**.

informazio gehiagorako deitu

948 63 54 58

info@ttipi.net

ttipi txartelarekin
beti irabaziko duzu!

auto eta bizikleta tailerrak	auto eskolak	Semper autoeskola SEMPER BERA %10 matrikulan	AYLA argazkigintza fotografia AYLA Argazki-denda BERA %10 kopia digitaletan, Nortasun Agiriko argazkietan
BERAUTO BERAUTO Tailerra BERA %5 errekanbioetan	DATUCELAY ELIZONDO %10 bateria eta amortiguadoretan	argazki-dendak	FOTO-ARGAZKIAK GOIKO GOIKO • BERA www.fotogoiko.com %10 kopia digitaletan
Sansinena garagea SANSIENENA ELIZONDO %10 olio-aldaketetan	 KATEA BIKE BERA %5 konponketetan	FOTO MENA MENA Argazki-denda ELIZONDO %10 kopia digitaletan	 ZALDUA Argazki-denda DONEZTEBE / ELIZONDO %10 kopia digitaletan
arropa-dendak	bixkiak BIXKIAK LESAKA %10eko deskontua	KATTALINGORRI KATTALINGORRI ELIZONDO %10eko deskontua	bitxi-dendak
 EDURNE • BERA %5eko deskontua, 30€tik gorako gastuan	FANTXIKE FANTXIKE • ELIZONDO %10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan	ETXARTE ETXARTE Bitxi-denda LESAKA %10eko deskontua	estetika zentruak
IPINGI IPINGI • ELIZONDO %10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan	JUAN J. PIKABEA PIKABEA • DONEZTEBE %10 [galtza marka batzuetan izan ezik]	etxe-tresnak	AMAIA • DONEZTEBE %5 kosmetikan, %10 oparietan
haurren denda	POTTOKI POTTOKI • ELIZONDO %5 oparitzeko artikuluetan	lentzeriak	MAIMUR MAIMUR • LEITZA %10 oparitzeko artikuluetan
kirol dendak	Agara kirolak AGARA • BERA %5eko deskontua kirol artikuluetan	Denē DENĒ LESAKA %10eko deskontua lentzerian	liburu-dendak
IPARLA kirolak IPARLA • ELIZONDO %8ko deskontua, 30€tik gorako gastuan	KIROLAK ZELA ZELA Kirolak BERA %5eko deskontua	nafarpres NAFARPRES • ELIZONDO %10 liburu eta ikas materialetan. Testuliburu eta bideoak ezik	liburu-dendak
optikak	ARGIBEL OPTIKA ARGIBEL Optika DONEZTEBE / ELIZONDO %10 anteju graduatuetan	tindategiak	JAIONE tindategia JAIONE • DONEZTEBE %10eko deskontua, 12€tik gorako gastuan
INTZURI INTZURI Optika LESAKA %10eko deskontua	OSTARGI optika OSTARGI • BERA %10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan	zapata-dendak	CASA OSTIZ OSTIZ Zapata-denda DONEZTEBE %10eko deskontua
pentsuak	MENDAUUR • DONEZTEBE %5eko deskontua zakur eta katuen pentsuan	KALOTXA Zapadenda KALOTXA • BERA %5eko deskontua, 18€tik gorako gastuan	TXINELKA • LESAKA %10eko deskontua

GIZARTEA

'Mugarik gabe' topaketa egingen da heldu den astean Bortzirietan

Horrez gain, futbito txapelketa jokatzeko ari dira

ttipi-ttapa

Etorkinak eskualdean gizarteratzeko helburuarekin, eta herrialde bakoitzaren kultura hemen ere ezagutarazteko, *Mugarik gabe* topaketa antolatu dute bertze urte batez Bortzirietako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuek eta Euskara Mankomunitateak elkarlanean. Bortzgarren edizioa izanen da aurten goa, eta egitarau zabal prestatu dute.

Futbito txapelketa, erraterako, joan den larunbatean, irailak 27, abiatu zuten. Larunbat honetan, urriak 4, bigarren kanporaketa jokatu da eta urriaren 11n, berriz, finala. Berako kiroldegian ari dira partida guztiak jokatzeko. Egun haundian, urriaren 11n, 16:00etan hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko lehia jokatu da eta 17:00etan final nagusia.

Futbito txapelketaz gain, bertzelako ekitaldiak ere antolatu dituzte *Mugarik gabe* astean barne. Lesakan, Etxalarren eta Beran egingen dira, hurrengo astean.

Etxalarren, urriaren



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurten ere bertze herrialdeetako dantzak ikusteko aukera izanen da urriaren 11n Berako kiroldegian.

7an, asteartea, *Hamarretik zortzi* (hautzarroari buruz) eta *Iratzarriak* (emakumeari buruz) dokumentalak ikusteko aukera izanen da, 19:30ean Kultur Etxean. Ondotik luntxa izanen da.

Urriaren 9an, ortzeguna, Lesakak hartuko du jardunaldien lekukoa. Solasaldia egingen da *Zurekin, bertze munda baietz lortu* izenburupean. Globalizazioaren azterketa egingen da eta gizakiak hori hobetzeko egin denaz mintzatuko dira. 19:30ean hasiko da Lesakako Udalaren

erabilera anitzeko aretoan. Hitzaldia TAU fundazioak emanen du. Ondotik, Etxalarren bezala, luntxa egingen da.

EGUN HAUNDIA URRIAREN 11N

Halere, egun haundia, urriaren 11n egingen da Beran. 16:00etan emanen zaio hasiera jaialdiari. Futbito txapelketako azken partidak jokatu ondotik, 17:30ean kalejira izanen da Topacio eta Lamiak taldeekin. 18:00etan Julen Zelaieta bertsolariaren txanda izanen da. 18:05ean txalaparta, tri-

kitxa eta Yenbe saioa izanen da. 18:20an Inti Kausay taldeak manifestua irakurriko du. 18:45ean futbito txapelketako sari banaketa egingen da. 19:00etan sabeleko dantza saioa eskainiko du Nuha Mushalek.

Ilunabarean, 19:15etik 20:15era kapeira dantzak ikusteko aukera izanen da Topacio taldearekin. Segidan, jardunaldi gastronomikoei emanen zaie hasiera, eta egunari behar bezalako segida emateko, 21:00etatik 23:00etara dantzaldia izanen da.

EUSKARA

Abian da berriz ere Solaslaguna egitasmoa Bortzirietan

ttipi-ttapa

Euskara Mankomunitateak bultzatuta, Solaslaguna egitasmoa martxan jarriko da laister. Orain arte parte hartu dutenekin batera, talde berriak sortzea da Euskara Mankomunitatearen helburua eta horretarako izena emateko epea urriaren 2an, ortzeguna, zabalduko da. Egitasmo honekin, euskara ikasleei harreman berriak euskaraz egiteko aukera eskaintzen zaie, euskaraz ongi dakitenekin, eta hartara, euskara maila hobetzen dute. Bertzetik, aipatu, Mankomunitateak 500 pin banatuko dituela debalde, bi helbururekin, batetik, egitasmoa ezagutarazteko, eta bertzetik, euskaraz egiteko giro aproposa sortzeko. Hala, euskara ikasleek edo zailtasuna dutenek jakinen dute lasai ederrean solasten ahal direla pin-a daramatenekin. Euskara batzordekideek banatuko dituzte batzuk, eta gainerakoak Bortzirietako Euskaltegian eskuratu ahal izanen dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 948 634125 telefonora edo idatzi euskara@bortzirriak.org helbidera.

BERA Zure inguru klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarna, kukuxu...) eta erratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zalan, 42 A • BERA

Alberto RETEGI

abokatu

abokatu

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA



RENAULT

Stocean dagoen autoren bat erosteagatik, Parrot esku libreko sistema edo TOM TOM nabegatzailea OPARI



2008ko urria

Km 0 eta auto ia be



KANGOO EXPRESSION GRAN VOLUMEN 1.5DCI 65CV

ABS • 2 airbag • Aire girotua • Ateen ixte-sistema zentralizatua • Beira-igogailu elektrikoa
Alboko ate bikoitz lerrakorra • Irratia MonoCD
Txisis luzea • AUTO BAT BAINO GEHIAGO



KANGOO EXPRESS GENERIQUE 1.9D 55CV

Airbag gidariarentzat
Kargatik banatzeko tabikea
Kargalekuan, gainaldeko tranpailua
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



CLIO EXPRESSION

ABS • 4 airbag • Aire-klimatizagailu
Atzeranzko isp
Atzeko beira ga
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



MASTER FURGONETA LUZEA SOBREELEVADO 1.9DCI 120CV

ABS • Gidariaren airbag • Aire-girotua
Irratia • Kargatik banatzeko tabikea
alboko 2 atek lerrakorrak



KANGOO AUTHENTIQUE 1.9DCI 80CV 4x4

ABS • 2 airbag • Aire-girotua • Irrati kaseta
4 gurpiletako trakzioa • Ateen ixte-sistema zentralizatua • Beira-igogailu elektrikoa
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



KANGOO FARWAY

ABS • 2 airbag • Aire-girotua
Aluminiozko gurpil-hagunak
Atzeranzko ispilu elektrikoak
konpartimenduak, hegala
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



SCENIC EXPRESSION 1.5DCI 85CV

ABS • 6 airbag • Aire-girotua
Beira-igogailu elektrikoa • Ateen ixte-sistema zentralizatua • Irratia MonoCD
Pintura metalizatua



KANGOO AUTHENTIQUE BERRIA 15DCI 70CV

ABS • 4 airbag • Beira-igogailu elektrikoa
Ateen ixte-sistema zentralizatua
Aire-girotua • Irratia MonoCD
Auto gaineko barrak
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



CLIO GRAND-TOUR

ABS • 6 airbag • Beira-igogailu elektrikoa
Ateen ixte-sistema zentralizatua
Aire-klimatizagailua
Auto gaineko barrak

900€

PEDRO GARMENDIA, S.A

Tel.: 948 580 431 - 948 580 436 - 608 977 685

Faxa: 948 580 973

ELIZONDO (Nafarroa)

garmendia@red.renault.es

errien hilabetea



1.5DCI 85CV 5 ate

Pack elektrikoa
Aire-irratia • Irrati MonoCD
Ispilu elektrikoak
Aire-irratetik tintatuak
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



MODUS DYNAMIQUE 1.5 DCI 85CV

ABS • 4 airbag • Aire-klimatizagailua
Abiadura mugatzailea • Laino-argiak
Irrati MonoCD-MP3 • Ibilbide-kontrola
Aluminiozko gurpil-hagunak
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



CLIO DYNAMIQUE 1.5DCI 85CV 5 ate

ABS • 4 Airbag • Pack elektrikoa
Aire-klimatizagailua • Irrati MonoCD
Abiadura mugatzailea • Atzeranzko ispilu
elektrikoak • Aluminiozko gurpil-hagunak
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



1.9DCI 80CV 4x4

Aire-irratia • Irrati MonoCD
Abiadura mugatzailea • Auto gaineko barrak
Ispilu elektrikoak • Alboko
Aire-irratetik tintatuak
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



MEGANE DYNAMIQUE 1.5DCI 85CV

ABS • 6 airbag • Aire-klimatizagailua • Abiadura
mugatzailea • Fokuen pizte automatikoa • Euri
sentsorea • Irrati MonoCD • ASR ESP • Aluminiozko
gurpil-hagunak • Barruko ordenagailua
Larruzko bolantea • AUTO BAT BAINO GEHIAGO



KOLEOS DYNAMIQUE 2.0DCI 150CV 4x4

ABS • 6 Airbag • Bi-zona klimatizagailu autom.
Aldapen gora-behera kontrola • Aitzineko eta
gibelesko hurbiltasun radarra • Irrati CD MP3
17" aleaziozko hagunak • Erretroisore elektrikoak
"Esku libreko" Renault txartela • Parking
automatikoko frenoak • Auto gaineko barrak
Aitzineko eta atzeko eserleku etzangarriak
Larruzko bolantea



DYNAMIQUE 85CV

Aire-irratia • Irrati MonoCD
Abiadura mugatzailea • Auto gaineko barrak
Ispilu elektrikoak • Alboko
Aire-irratetik tintatuak
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



MEGANE DYNAMIQUE 1.5DCI 105CV

ABS • 6 airbag • Aire-klimatizagailua
Abiadura mugatzailea • Fokuen pizte automatikoa
Euri sentsorea • Irrati MonoCD • ASR ESP
Aluminiozko gurpil-hagunak
Barneko ordenagailua • Larruzko bolantea



TRAFIC COMBI 9 PLAZA PASSENGER 2.0DCI 115CV

Aire-irratia • Aire-irratia zentralizatua
Beira-irratia • Aire-irratia zentralizatua
Irrati MonoCD • Atzeranzko ispilu elektrikoak

MALERREKA

Urrutia erremontelaria omenduko du Saldiasek igande honetan

Herri bazkarirako txartelak hartzeko azken eguna ortziral hau da

ttipi-ttapa

Buruz buruko Casino Kursaal Torneoko txapeldun berria den Migel Mari Urrutia erremontelaria omenduko dute jaio-terrian igande honetan, urriak 5. Irailaren 6an jantzi zuen txapela Urrutia saldiastarrak, txapela janzteko faboritua zen Zeberio II.ari 29 eta 35 irabazita. Ezustea eman zuen finalean eta hori gogoratuko dute igandeko omenaldian.

Goizetik nabarituko da mugimendua herrian. 09:00etan txistulariak kalejiran ibiliko dira eta 11:00etan Meza Nagusia izanen da. Ondotik, 12:00etan afizionatuen arteko partida jokatu da. 14:00etan herri bazkaria egingen da bertso-lariekin eta arratsaldean dantzaldia izanen da.

Bazkarira joan nahi duenak aitzinetik hartu beharko du txartela. Toki hauetan daude salgai: Doneztebeko Kafe ostatuan eta Kontxa zerbitzunean, Saldiasko



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Duela urte batzuk, Urrutia binakako Faustino txapelketan txapeldun aterazenean. Aldi honetan aurkari izan duen Zeberio II.a izan zuen lagun orduan.

Herriko Ostatuan eta Leitzako Beatriz ostatuan. Azken eguna ortziral hau, urriak 3, izanen da.

Turistaren Eguna Elgorriagan

Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradiak antolatuta, asteburu honetan ere ekitaldiak izanen dira Elgorriagan. Larunbatean, urriak 4, Onddoaren Ibilbidea egingen da, 9:30ean abiatuta. Bostorratzen gosaria em-

nen zaie bildutakoei. Igandean Turistaren Eguna egingen da. 10:00etan meza izanen da eta ondotik Arangurengo abesbatzak saioa eskainiko du. 11:30ean Saralegi harri-jasotzaileak hartuko du protagonismoa eta ondotik Aurtizko joaldunen txanda izanen da.

Eguerdia hurbildu ahala, plazan bertan egindako onddoak dartzeko aukera izanen da. Aipatu, txaranga eta

txistulariak goiz osoan karraketan ibiliko direla.

Txistulari Eguna Donezteben

Doneztebeko Txistulariek Udalaren laguntzarekin Txistulari Eguna antolatu dute urriaren 11rako. Goizean Merkatu Plazan elkartuko dira eta auzoz auzo eta karriz karriz ibiliko dira bazterrak alaitzen. Eguerdiaren herri bazkaria egingen dute.

IKASTAROA

Enpresa kudeatzen laguntzeko ikastaroa

ttipi-ttapa

Anel Nafarroako Lan Enpresen Elkarteak antolatuta, *Gure enpresa kudeatzen* enpreko ikastaroa egingen da azaroaren 4tik 27ra Cederna-Garalur Elkarteak Lesakako Alkaiaga industrialdean duen egoitzan. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Europar Batasunak %100ean subentzionatutakoa izanen da eta astearte eta ortzegunetan eskainiko da, 16:30etik 20:15era. Gehienez ere 15 lagunek ematen ahalko dute izena, eta horretarako 948625122 telefonora (Begoña) deitu beharko da, 09:00etatik 14:00etara. Izena emateko azken eguna urriaren 24a izanen da. Lau zatitan banatu dute programa: kontabilitatea, kudeaketa finantzarioa, fiskalitatea eta lan kudeaketa.

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Instalazio elektrikoak
Muntaketak
Mantentze industrialia
Sare elektrikoaren analisia

IngeBrand
Fernando Descalzo Echeverria
Elektrikari-Ingeniaria

Latsaga, 22 - 3.Esk. • IGANTZI • 948 637 607 • 687 871 444
fernando.descalzo@telefonica.net

BEINTZAKO OSTATUA
© 948 45 00 14
orbela@alberguesnavarra.com
www.alberguesnavarra.com/beintza
31753 BEINTZA LABAIEN

ORBELA
Santitas - Alberola

ttipi ttapa

☎ (0034) 948 635458

BEINTZA-LABAIEN

DIRULAGUNTZA

Iturrondo Elkarteak antolatuta Urriruko besta larunbat honetan

Bortzgarren edizioa izanen da aurtengoa

ttipi-ttapa

Bostgarren urtez, Iturrondo Elkarteak Udalaren laguntzarekin, Urriruko besta antolatu du larunbat honetarako, urriaren 4rako. Arratsaldean ematen zaio hasiera bestari: 17:00etan inguruko artisauek euren lanak erakusgai paratu dituzte plazan.

18:00etatik aitzinera Iturengo Joaldunak karrikaz karrika ibiliko dira giroa alaitzen. Beranduago, 19:00ak aldera, aizkora apustua eta harri jasotzailearen saioa izanen da.

Goizeangoiz, 06:00etan, prestatzen hasitako afariaren txanda etorriko da ondotik. Goizaldetik erretzen dagoen aretzea dastatzeko aukera izanen da. Ka-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurten ere ez da herri kirol saiorik faltako larunbat honetako Urriruko Besta.

nalean 270 kilo pisatzen dituen aretzea prestatuko da, eta 21:00etarako prest egonen da. Aurten karpa batean egingen da afaria. Aretzeaz gain, salda, piperrada,

entsalada, fruta, gazta, irasagarra eta edariak sartuko dira afariko prezioaren barne. 300 lagunentzako otordua izanen da.

Afaltzeko tenorean, zoz-

keta egingen da Nafarroa eta Beintza-Labaiengo produktuekin.

Antolatzaileek herritar nahiz kanpokoei bestan parte hartzeko gonbita luzatu diete.

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak kirol instalazioetan konponketa lanak egiteko dirulaguntzak onartu ditu Nafarroako hainbat herrietarako. Horien artean daude Malerrekako bi: Beintza-Labaien eta Doneztebe, hain zuzen. Bien artean 103.058 euroko dirulaguntza hartuko dute. Beintza-Labaienen kasuan, 68.041 euro hartuko ditu Udalak eta pilotalekua estaltzeko erabiliko du diru hori. Donezteberen kasuan, berriz, 35.017 euro jasoko dira eta pilotalekuko frontisa eraberritzeko izanen da diru hori.



AMAIUR ALTZARIAK

Rosa Seminario 13
DONEZTEBE
Tel.:948 450 400

PARETA-ARMAIRUAK ETA BAINUETAN ESKAINTZA BEREZIAK

ITUREN

Eguraldi kaxkarra izan arren, giro ederrean joan da Joaldunen Egunaren 25. urteurrena

Plazan egindako ekitaldien barrenean Periko Arrosenekoa omendu zuten

Arkaitz MINDEGIA

Eguraldi kaxkarra izan arren, 52 joaldun bildu ziren irailaren 13an ospatu zen Joaldunen Egunean. Duela 25 urte, 1983an egin zen lehen aldiz Joaldunen Eguna eta gehienbat joaldun zaharrak omentzeko asmoz sortu zen.

10:00etan 36 joaldun eta herriko trikitilariak Amezti auzoan baserri baserri ibili ziren. Beraien ibilbidean hainbat geldialdi egin zituzten, baserriarrek prestatutako pintxo goxoak dastatu eta beraiekin hitzordu goxoak eginez. Gazteenak Amezti auzoan zeuden bitartean, Lasaga auzoan eta herrian ibili ziren. Egurdi aldera, Ameztitik herrira jausti eta joaldun guztiak elkartu ziren, denetara 52. Joaldunek lazo beltza jarri zuten herrian zendutako guztien omenez. Plazara iritsi zirenenan joaldun guztientzat, sorpresak iristen joan ziren: lehenik Ander Eratsunek enbor



ARGAZKIAK: ARANTXA ARIZTEGI

Eguraldiak ez zuen aunitzik lagundu, baina egun ederra izan zen herritar zein kanpokoentzat.

bati 25 ebaki eman zizkion txalaparta doinuen laguntzarekin eta ondotik, herriko bi gazteek aureskua dantzatu zuten.

Ondotik, taula gainetik hitz batzuk eskaini zituzten Maider eta Joxe Marik. Hasierako urteak gogora ekarri zituzten eta

antolatzaileek herritarren parte-hartzea eskertu zuten. Aipamen berezi bat egin nahi izan zioten Arrosenekoa Perikori. Bera jo-

aldun izan zen, eta gainera, orain 32 urte aizkora apustu bat egin zuten lau herritarretako bat izan zen. Aurtengoan, bere tokia Rafaellek bete zuen. Omenaldia aizkoran arituz egin zuten eta horrez gain, oroigarri bat eskaini zioten Arroseneko familiari. Miel Mindegia bertan zela aprobetxatuz, berak eman zuten.

Saio bukaeran oroigarri jaso zuten parte hartu zuten aizkolariek. Segidan Xabier Amuriza eta Jon Maia bertsolarien txanda izan zen. Periko omenduz Amurizak koadro bat esku artean hartu eta bertan idatzitako bertsoa kantatu zuten Maiaren laguntzarekin. Egurdiaren 250. lagun bildu ziren plazan jarritako karpan familia eta lagun artean bazkaltzera. Arratsaldean Mikel Salaberri akordeoilarik eta gauean Joselu Anaiak taldeak giro paregabea jarri zuten egunari amaiera emateko.



UNE-EN-ISO 9001

IAC

INSPECCIÓN, AUDITORIA Y CERTIFICACIÓN

SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO

SCC-02-0199



Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatu, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. · Banarta, 8 - 23 pabiloia · LESAKA · Tfnoa: 948 631 536 · Faxa: 948 631 550



PRIM, c.b.

Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

MALERREKA

FLASH

Euskararen Eguna prestatu dute urriaren 11rako Zubietan

Bertzeak bertze, erakusketa, herri kirolak, bazkaria eta antzerkia izanen dira

ttipi-ttapa

Bertze urte batez segidan, Euskararen Eguna antolatu dute zubietarrek urriaren 11rako. Eguna osoko egitaraua antolatu dute, larunbat goizean hasi eta hurrengo eguneko goizaldera arte.

Goizean, 10:30etik aitzinera, herriko artisauek euren lanak erakusgai paratuko dituzte: egurra, jertseak, zeramika eta bertzelako gaiak nola lantzen dituzten ikusteko modua izanen da. Erakusketa 12:00ak arte egonen da zabalik. 11:30ean joaldunen txanda izanen da eta karriketaren barna ibiliko dira joare soinuekin bazterrak alaitzen. Eguerdian, 12:00etan, herri kirolak izanen dira eta ondotik herri bazkaria eginen da.

Arratsaldean herriko ttikienak izanen dira protagonistak. 17:00etan hasita antzerkia izanen da eurentzat. Egunari behar bezalako segida emateko, berriz, afaria eginen da 22:00ak aldera eta gauerditik aitzinera Garraxi musika taldearekin dantzaldia izanen da.



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Plan Orokorra egiteko akordioa Donezteben

Nafarroako Gobernuak Etxebizitza eta Lurralde Antolamenduko Departamentuko kontseilaria den Carlos Esparzak eta Miguel San Miguel Doneztebeko alkateak herriko Plan Orokorra egiteko hitzarmena sinatu dute. Plana egitea 150.000 euro kostako da eta Gobernuak %80 subentzionatuko du. Horrez gain, Jarraipen Batzordea ere osatu dute udal ordezkari eta Gobernuako teknikariak: Miguel San Miguel alkatea, Gloria Arregi, Joaquin Duque, Ainhoa Irizar eta Rafael Araujo. Aurrekontuaren barne ingurumean izan dezakeen eraginaren azterketa ere sartzen da. Horrekin erregimen hidraulikoa eta uholdeak saihestea hartu nahi da kontuan. Gainerakoan, Plan Orokor horretan Udalak hiru helburu finkatu ditu: batetik, Oteizako meandroaren planifikazioa egitea. Herriko lurzoru erreserba estrategiko nagusia eta Nafarroa Atlantikoan erreserba nagusietako bat dela irizita. Hortik abiatuta, eremuak hainbat erabilera izan ditzake: industria erabilera, Legasan Arcerlor enpresa dagoen lurretatik hurbil (hala, bi industria eremuen azalera batuz gero, inguruko industria eremu haundienetako bat osatuko litzateke); toki eta eskualde mailako industria erabilera, herriaren beharrei aitzin egiteko eta etorkizuneko inguruko herri nagusia izan dadin bultzatzeko; eta azkenik, herriko udal eskaintza osatzeko erabilera. Bigarren helburua urbanizatzeko egoiak diren eremuak mugatzea da, herriguneko zenbait karrika urpean gelditzeko arriskua dagoela kontuan hartuta, eta eremu horietan urbanizazio lanak egin ahal izateko baldintza egokiak finkatzea. Hirugarren helburua etxebizitza beharrei buruzko azterketa egitea da, batez ere, babes publikoko etxebizitzaren eskariari buruzkoa.

Ikastetxe publikoentzako dirulaguntza onartu du Gobernuak

Ikastetxe publikoentzako laguntzak onartu ditu Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak 2008an eginen diren eskolaz kanpoko ekintzetarako.

Baztanen, Almandozko eskolak 419,69 euro hartuko ditu; Amaiurkoak 409,77 euro; Arizkungoak 433,21 euro; Arraiozkoak 375,62 euro; Azpilkuetakoak 364,61 euro; Elizondoko San Fco Javier ikastetxeak 1.124,78 euro; Gartzaingo eskolak 390,46 euro; Erratzukoak 376,51 euro; Iruirikoak 479,25 euro; Oronoz-Mugairikoak 414,01 euro eta Zigaokoak 421,30 euro. Lekaroz-Elizondo Institutuak, azkenik, 1.747,30 euro.

Bertizaranan, Legasako eskolak 365,50 euro jasoko ditu eta Narbarrekoak 397,71 euro.

Bortzirietan, Arantzako eskolak 439,78 euro jasoko ditu; Berako Ricardo Barojak 613,30 euro; Etxalarko eskolak 488,58 euro; Igantzikoak 512,60 euro; Lesakako Irainek 810,10 euro eta Toki Ona Institutuak 927,73 euro.

Leitzaldean, Aresoko eskolak 391,92 euro hartuko ditu; Leitzako eskolak 777,47 euro eta Goizuetakoak 545,41 euro. Amazabal Institutuak 751,03 euro jasoko ditu.

Malerrekan, Beintza-Labaiengo ikastetxeak 357,42 euro hartu ditu; Doneztebeko San Migel ikastetxeak 1.136,11 euro; Iturengo eskolak 498,56 euro; Sunbillaokoak 538,64 euro. Mendaur Institutuak, berriz, 988,55 euro.

www.ttipi.net

ERREZETA BILDUMA
tradiziozko errezeta
gozagarriak



Kimetz
Belardenda
Lorea Agirre

Dietetika eta nutrizioa
Dieta pertsonalizatua
Naturista kontsulta • Masajeak
Tel. 948 451 473
DONEZTEBE

ARESO

Ehun mendizalek parte hartu dute Mendi Martxaren lehendabiziko edizioan

Udalak, Plazaola Partzuergo Turistikoak eta Kirol Mankomunitateak antolatuta egin zen

Juana Mari SAIZAR

Aresoko I. Mendi Martxa egin zen irailaren 14an. Plazaola Partzuergo Turistikoak, Kirol Mankomunitateak eta Udalak antolatuta izan zen. 18 kilometroko luzera izan zuen ibilaldia eta Areso eta inguruko mendiak eza-gutzeko aukera eskaini zuen. 100 lagun inguru bildu ziren eguraldi txarrari aurre eginez.

Bukaeran bokadiloak, oparitxo bana eta guztien artean mendiko hainbat material zozketa ziren. Hau oso erakargarria iruditu zitzaion jendeari. Helmugara ailegatzerakoan dortsala entregatzearekin bate-

ra, oparia baldin bazuten jaso egiten zuten. Antolatzaileak gustura ageri ziren itzuliak izandako emaitzarekin eta hasierako aurrikuspenak gainditu zirela adierazi zuten, martxa lehendabiziko aldiz antolatu zela eta eguraldi euritsua izan zela kontuan hartuz. Ea bada datorren urtean jende gehiago animatzen den.

Herriko pilotariak

Herriko pilotariak hainbat final jokatu zituzten irailaren hirugarren asteburuan. Igan-dearekin, Anartz Olanok binakako finala jokatu zuen Leitzako IV. Pilo-



ARGAZKIA: ANE BARANDIARAN

Igor Arraigo kirol zinetotzia –goian ezkerretik hasi eta lehena– eta Ruben Goñi koordinatzailea –goian ezkerretik hasita bigarrena– ageri dira argazkian, Mendi Martxako sariak emandakoan.

ta Txapelketan infantil mailan eta azpitxapel-dun geratu zen. Bestalde, arratsaldean, Unai

Onsalo izan zen protagonista, Amezketan jokatu zen XIX. Joxean Tolosa txapelketan fi-

nala jokatu baitzuen. Hau ere azpitxapel-dun izan zen Armendarizen aurka galdu ondotik.

ARANO

Ainhoa Ansa segalariak zortzigarren postua lortu du Alemaniako txapelketa batean

90 zentimetro azpiko segarekin aritu zen

ttipi-ttapa

Alemanian jokatutako nazioarteko sega topaketa batean, Ainhoa Ansa herriko segalariak zortzigarren postua eskuratu zuen duela aste pare bat. Almitza Sega Elkartearen ari-

da Ainhoa eta zortzigarren postu hori 90 zentimetro azpiko segarekin lortu zuen. Alemaniako Murrhardt-Göckelhof herrian egin zen txapelketa.

Duela urtebete ere, garai honetan, saio txu-



ARGAZKIA: AINHOA ANSAK UTZITAKOA

Euskal Herriko Alemaniara joan ziren segalarien taldea ageri da argazkian. Tartean Ainhoa Ansa aranoarra ageri da, Nafarroako ikurrinari eusten.

kuna egin zuen Ainhoak Ixabel Ansa izabarekin batera. Ordizian (Gipuzkoa) jokatutako

Euskal Herriko nazioarteko erako txapelketan izan zen. Taldea ber-tze birekin aritu ziren

Ansatarak, Elgarrekin izeneko taldean, eta emakumezkoetan txapel-dun atera ziren.

GOIZUETA

Hurrengo neguko landaketen plangintza onartu du Udalak

Nafarroako Gobernuarekin adostu dira landare motak

Esteban AROTZENA
 Herriarenak diren mendietan hurrengo neguan burutuko diren landaketen plangintza onartu zuen Udalbatzak hil honen 18an egindako aparteko osoko bilkuran. Kasu guztietan Nafarroako Gobernuarekin adostu du Udalak aldatu beharreko landare mota. Bestela, jakina, ez baitu dirulaguntzarik jasoko. Hala ere, ez dute paraje guztiek tratamendu berdina izanen. Petriseneako 3,49, Aritziarrako 19,58 eta Deskargako 7,68 hektareatako landaketak Udalaren esku egonen dira erabat eta %80ko subentzioa jasoko dute Iruñetik. Horixe da, hain zuzen, leku horietan konifero gehiago

sartzearen arrazoia. Sekuoia, douglas izeia, tuliperoa, criptomeria eta beste zenbait landare mota sartuko dira aipatutako parajeetan.

Beste bi mendietako lanak, Zimizketa eta Easporru, Gobernuaren kontura joanen dira. Lehengoan ia 15 hektarea landatuko dira, eta hemen ere goian aipatutako espezieak nagusi dira, proportzio txikiagoan bada ere. Easporrun, berriaz, 30 hektarea garbitu, itxi eta zulatuko dira ia 24.000 landare aldatzeko. 124.682 euroko aurrekontua du Iruñeak bi mendi hauetarako.

Bisita gidatua

Larunbatean, urriak 4, bisita gidatua egingen da



ARGAZKIAK: NAIARA AROTZENA

Iskibiko erromeria

Amabirjinak eta Sanagustinak igaro berriak badira ere, herritarren festa gosea oraindik ase gabe zegoela dirudi, ikaragarritzko arrakasta izan baitzuen hilaren 21eko Iskibiko euskal jai-talojate-erromeriak. Egun batean saldu ziren bazkarrirako 80 txartelak eta gutxienez beste hainbeste lagunek etxetik eramandako janariarekin edo kanpinean bertan prestatutako bokadiloekin konformatu behar izan zuten. Ilunabarreko berbenak bukaera paregabea eman zion egun oso giro ederrari. Argazkian egunean zehar antolatutako bi ekitaldiren agiriak ageri dira. Goian, goizuetarren eta oiartzuarren arteko herri kirol desafioa. Behen, talogile-tokako zapeldunak animatzaile eta guzti.

abuztuan inauguratu ziren Alkasoaldea eta Aitasemegiko ibilbide me-

galitikoetara. Hilharriak taldean dabilen Xabier Taberna buru dela egi-

nen da bisita. Ondotik, Umore Ona Elkartearen bazkaria izanen da.



Añorgatxiki 11 behea
 20018 DONOSTIA
 Tel: 943 368 781
 Fax: 943 368 781
 Mug. 671 073 888
 behetik@behetik.com



PLATAFORMA JASOTZAILEAK



LEITZA

Hiru saio berrirekin hasi du denboraldia Karrape Irratiak

Irrati zapping-a, bidaia birtualak eta herriko ikasleen saioa dira

Joseba URKIOLA

Musikaz eta jai giroz homitutako udako saioaren ostean, Karrape Irratiak urriaren 1ean ekin zion denboraldi berriari. Arantxa Iparragirrek eta Unai Sagastibeltzak gidatzen duten irrati lokala, aurtengoan ere, berrikuntzaz josia heldu da. Pasa den denboraldiko saio batzuek gain, nobedadeak izanen dira.

Batetik, euskal irrati zapping-a delakoa dago. Euskal Herriko hainbat irrati egunerokotasunean egiten dituzten gauzen hautatze bat eskainiko da. Hartara, bestelako garrantzia eman nahi zaie euskaraz lan egiten duten irratiari.

Bestetik, Euskal Herriko herri desberdinetara eginiko bidaia birtualak daude. Saio honetan, entzun bai, baina oraindik oso ongi ezagutzen ez ditugun gure herriko hainbat txoko ezagutze-ko aukera emanen da.

Azkenik, kanpoan ikasten duten leitzarren hamabosteroko saioa aipatu behar da. Orain hiru urte hasi zen saio hau eta orduan Euskal Herriko unibertsitate desberdinetan ikasten zuten

herritarrak ziren protagonista. Aurtengoan, baina, Galizia, Katalunia eta espaniar estatuko beste hainbat gune izanen dira erreferentzia leku.

Ipuin Lehiaketa

Altzadi Kultur Taldeak 16 urtetik gorako herriarrentzako III. Ipuin edo Narrazio Laburren lehiaketa antolatu du. Lanak Maimur edo Astiz liburudendatara eraman beharko dira. Aurkezteko azken eguna urriaren 17a izanen da.

Honi lotuta, esan, Kultur Taldeak azaroaren 6rako ekitaldi berezi bat antolatu duela eta orduan ezagutaraziko dela lehiaketako irabazlearen ize-na. Gainera, lehiaketa parte hartzen duten lan guztiak liburu batean bildu eta liburutegian, liburudendetan eta eskolatan banatuko dira.

Hitzaldia

Ostiralean, urriak 3, 19:00etan *Razas autóctonas en peligro: betizus, jaca navarra y caballo burguete* izenburupean, hitzaldia eskainiko da udal liburutegian. Hitzariak Satur Nepal Lekunberri eta Alberto Perez



ARGAZKIA: SAGRARIO LASARTEK UTZITAKOA

Bukatu da Eskuz Binakako Txapelketaren IV. edizioa Irailaren 22ean jokatu ziren Leizako Eskuz Binakako IV. Txapelketaren finalak. Beste behin ere, Aurrera Pilota Eskolak antolatutako lehiara Euskal Herri zabaletik etorritako jendetza bildu zen Amazabal pilotalekuan. Orotara bost final jokatu ziren. Partida batzuk besteak baino ikusgarriagoak suertatu ziren arren, denek izan zuten euren emozio eta dotorezia puntua. Nabarmenezkotan, kadete eta nagusien mailakoak leudeke. Bietan ere, aurrelari txapelak bikain jokatu zuten eta gozatu ederra eman zieten pilotalekura gerturatu ziren ikusleei. Alebinetan, Garziarena-Iribarriak 18 eta 15 irabazi zieten Sagastibeltza L. eta Bakaikoari. Infantiletan, Olano-Artola bikotea 5ean gelditu zen Elezkano eta Hernandorenaren kontrako partidari. Kadeteetan, Arrieta-Jauregik 18 eta 16 irabazi zieten Tainta-Arratibeli. Jubeniletan, Jaunarena-Zabaleta 22 eta 5eko markagailuarekin txapelak izan ziren Ansotegi-Albisuri irabazita. Nagusien partidari, azkenik, Urtasun-Jauregik 22 eta 16 irabazi zieten Renobales-Madariagari.

de Muniain Ortigosa izanen dira. Bi hauek zaldi eta betizuei buruz, euskaraz eta gaztelaz liburu bana argitaratu dute. Betizuen kasu gainera, beren lana egokiro osatzeko, Leizako informazio eta irudiak jasozituzten. Inguruko beste herrietako argazki eta informazioa ere irakur daiteke. Hizlarietako bat albaitaria da eta bestea medikua.

Bengoetxea VII. ari kontratua luzatua

Ibai Bengoetxea Frontiseko pilotari leitzarri kontratua luzatu dio enpresari. Urriaren 21ean

24 urte beteko dituen gazteak 2005eko urriaren 9an debutatu zuen profesionalean. Geroztik Euskal Herriko eta beste leku askotako frontoietan ibili da, urteko 50 partida jokatuz gutxi gorabehera. Kontratua berri-zearekin bada, 2010 arte gutxienez, Bengoetxea VII. ari jokoarekin gozatzeko aukera izanen dugu.

Aimar Sagastibeltza bigarren mailan

Aimar Sagastibeltza futbol jokalaria bigarren mailan jokatuko du aurtengo denboraldian. Tarragonako Nastic-ekin bi

urterako kontratua sinatu du. Bere futbol ibilbidea Tolosan hasi zuen. Bertan zazpi urte igaro zituen eta handik Gipuzkoako Beasain taldera joan zen. Lehengo urtean, berriz, Katalunia alderako bidea hartu zuen. Nastic-en filiala den La Pobla de Mafumet taldean jardun zuen atzelari gisa. Orain beste abentura bat hasi berri du. Etorkizunean zeresan handia eman dezaketena eta lehen mailan aritutakoak dituen lagun. Aurkari, berriz, guztiok ezagutzen ditugun bigarren mailako talde indartsu eta ez oso indartsuak izanen ditu.

Pitti
eskabazloak
Tel: 616 513 491
Mendiaketa etxea, 34 ZUBIETA

ttipi
ttapa
☎ (0034) 948 635458

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
☎ 948 625 474

BAZTAN

‘Bertzelako mundua posible da’ lelopean Bidelagun Jardunaldia egingen da ortziral honetan Elizondon

Aurten inmigrazioa izanen da gai nagusia eta horren inguruan prestatu dute egitaraua

ttipi-ttapa

Bertzelako mundua posible da. Lelo hori aukeratu du Bidelagun Elkarteak ortziral honetan, urriak 3, egingen den Bidelagun Jardunaldia egiteko. Gai nagusia inmigrazioa izanen da aurten eta horren harira, egun osoko egitaraua antolatu dute.

10:00etan aurkezpena

10:30ean inmigrazioa: Europako errealitate berria (Agustin Unzurrunzaga, SOS Arrazakeria).

11:30ean atsedenaldia.

12:00-13:00 inmigrazioa eta Gibraltarrreko itsasartea (Jose Villahoz).

13:00-14:00 etorkinendako espetxeak (Rafael Lara).

14:15ean bazkaria.

16:30-17:30 Baztango Kulturarteko Gunea. Egitasmoaren aurkezpena eta mahai-ingurua (Mikel Gereka Bidelaguneko bolondresa, Basilio de los Santos, Galo Erazo, Ruth Ortez eta Raul Lopez Baztango euskara teknikaria).

17:30ean amaiera

Jardunaldia herritar gutzietan irekia egonen da eta Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean egingen da. Parte hartzeko aitzinetik eman beharko da izena 948 581327ra deituz. Bazkaria, berriz, Santxotena jatetxean egingen da eta bazkide ez direnek 12 euro ordaindu beharko dituzte.

Rural Kutxaren Gordailu Hirukoitza

JAR EZAZU MARTXAN ZURE DIRUA

Rural Kutxan aurrezki-produktuetan adituak gara. Orain, produktu berria aurkezten dizugu: Gordailu Hirukoitza. Honi esker zure dirua martxan jartzea zinez errentagarria gertatuko zaizu. Egiazta ezazu gure bulegoetan jaulkipena agortu baino lehen.

INBERTSIOAREN %40

% 8

6 hilabeteko epean
T.A.E. % 8,16

INBERTSIOAREN %30

% 8

12 hilabeteko epean
T.A.E. % 8,00

INBERTSIOAREN %30

% 100

Dolarra Euroarekiko birbaloratzen den kopurutik 36 hilabeteko epean.
KAPITAL ZIURTATUA

nire aukerakoa

Eskaintza honek balioko du 2008ko urriaren 16a bitarte (edota jaulkipena bukatu arte) Nafarroako Rural Kutxan aurrezki-maila garbia handitu duten pertsonentzat. www.ruralvia.com Tel: 902 310 902

BAZTAN

Belateko zohikaztegia lehengora bueltatzeko proiektua onartu du Udalak

79.304,17 euroko aurrekontua dute lanek, baina gastua ez da Udalaren gain joanen

ttipi-ttapa

Interes bereziko gu-
neak dira zohikaztegiak
Europar. Eta gutti ba-
daude ere, horietako bat
Belaten dago, Baztan
eta Ultzamako lurretan.

Landareak, ura eta
zohikatza bezalako ele-
mentuekin sortzen di-
ren hezeguneak dira
zohikaztegiak. Baldin-
tza jakin batzuetan lan-
dare hondakina mote-
lago usteltzen da, eta
pilatzean, zohikatza me-
tatu egiten da.

Belateko zohikatza-
ren egoera, ordea, kas-
karra da, eta horri aitzin
egiteko proiektua onar-
tu berri du Udalak. Zohi-
katza sortzeko behar
den landaredia bere
onera ekartzea eta ho-
rretarako beharrezkoak
diren baldintzak sortzea
da txostenaren helbu-
rria. Hiru zatitan bana-
tu dute proiektua: Le-
hengora Itzultzeko Pro-
grama (46.612,65 eu-
roko gastua eragingen
du), Erabilera Publiko-
aren Programa (11.000
euro) eta Jarraipen Pro-
grama (21.691,52 eu-
ro). Guztira 79.304,17
euroko aurrekontua du
proposamenak eta Uda-
lak ez du deus ere or-
daindu beharko. Proiek-
tua Aritz Zaldúa inge-



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztango alde honetan, drainajeak ditu lurraren gainazalak.

niari teknikoak egin du.
Erabilera publikoaren
programa Isabel Iba-
rrolak eta koordinazioa
eta zuzendaritza Carlos
Armendariz eta Asun
Berastegik.

Erabilera publiko-
aren programa deitu du-
ten horretan, informazio
zentroa, aparkalekua,
askaldegia, interpreta-
zio ibilbideak eta dibul-
gazio kanpaina egitea
sartzen dira. Jarraipen
programaren barne, be-
rriz, landaredia, hidro-
logia eta lurzoruen ja-
rraipena egitea sartzen
da.

2005ean Nafarroako
Gobernuaren eskariz,
zonalde atlantiarreko

hezegune azidofiloen
diagnosia egin zen, eta
azterketa horretan, zohi-
kaztegiak eta zohikaz-
tegi moduko eremuak
bereizi ziren. Kontua da
Nafarroan zohikatza me-
taketa gertatzen den lau
toki bertzerik ez daude,
eta horietako bat da Be-
latekoa. Nafarroako
zohikatza metaketarik na-
gusienetarikoa da, gai-
nera.

Belatek 9,17 hekta-
rea ditu, horietatik 6,9
Baztango eremuan dau-
de, gainerako 2,27 hek-
tareak, berriz, Ultzama-
ri dagokizkio. Berezko
zohikaztegia Ultzama-
ko aldean dago eta 0,25
hektarea ditu.

Militarraren arrastoak kendu dituzte Gorramenditik

1975az geroztik Go-
rramendi mendian zeu-
den base militar ameri-
karraren hondakinak
erretiratu dituzte. Nafa-
rroako Gobernuak eta
Caixak hitzartutako
akordioaren bidez egin
dituzte garbiketa lanak.
Guztira 127.080 euro-
ko inbertsioa egin da lan
horietan.

Komunitatearentzat
Interesa duen Tokia
(LIC) da Gorramendi,
baina 1975az geroztik,
Ameriketako armada-
ren base militarren
arrastoak hor egon di-

ra, Gorramakil inguruan,
hain zuzen. Orain, or-
dea, garbiketa lanak
egin dira, eta ingurua
itxuraberritzeaz gain,
hondakinak (hormigoia,
ladriloak, burdinak, ho-
bi-sekptikoak, blokeak...)
eraman dituzte.

Hondakin batzuk bai-
mendutako lurritako to-
ki batera bideratu dira,
eta bertzeak, Gorra-
mendi bertan trinkotu di-
ra.

Bertzalde, aipatu, bi-
sitarientzako mahai pa-
noramiko bat ere para-
tu dela. Baztango men-
di eta herriak ageri dira
mahai horretan.

Euskaraz eginiko akatsak

Turismoari begira,
Nafarroako Gobernuak
inguruan paratu berri
dituen hainbat seinale-
tan akatsak egin ditue-
la salatu du Udalak.
Arraiozen, erraterako,
Jauregizarreari errefer-
entzia eginez, *Jaure-
gizar* eta *Jauregizahar*
izenak erabili dituzte,
eta ez bat eta ez ber-
tzea ez dira ofizialak.
Bertzen, bertetik, *Bér-
tiz* tildearekin ikus dai-
teke. Udalak okerrak
salatu eta zuzentzeko
eskatu dio Nafarroako
Gobernuari.

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iruñea · irabxeko monastegia 62, 4ºC · 31011

POTTOKI
Baztanberri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa.: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com

Astelehenetik
larunbatera:
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

BAZTAN

Lekarozko Kolegioaren inguruan lan-mahaia sortzea proposatu du alkateak Parlamentuan

Virginia Aleman Nafarroako Parlamentuan solastu da

ttipi-ttapa

Lekarozko Kolegioaren egoeraz mintzatu zen Virginia Aleman alkatea irailaren 16an Nafarroako Parlamentuan, Hezkuntza batzordearen aitzinean. Parlamentuan hitz egiten zuen lehendabiziko aldia zen Alemanentzat, baina bere hitzetan, «*beharrezkoa zen, Lekarozko kolegioaren etorkizunari buruzko berriak ez dagoela ikusita*».

Kaputxinoek kolegioa salgai paratu zutenean, Udalak eraikinarri ematen ahal zitzaion erabileraren inguruan azterketa egiteko eskatu zuela gogoratu zuen alkatea. Ikerketa horretan, Baztango gizarte eta ekonomiaren garapenerako zerbait egitea proposatu zen.

Alderdi erregionalistak (UPN) eta sozialistak (PSN) hizkuntz zentro bat egitearen aldeko aukera proposatu zuten. Hori, ordea, «*hankamotz*» gelditzen da Alemanen hitzetan. «*Orokorragoa izan beharko luke egitasmoak, eta kultura eta artearekin ere lotura duena*».

Baztandarren iritzia kontuan hartzeko, lan-mahaia sortzea propo-

satu du alkateak. Horrez gain, Nafarroako Gobernuarekin eta presidentearekin behin eta berriz biltzeko ahalegina erantzunik gabe gelditu izana salatu zuen.

Herrietako alkateak mugarriak berrikusken

Baztango Batzar Nagusiko partaideak izanda, herrietako alkateek

lehendabiziko aldiz parte hartu dute Iparraldeko lurrekin urtero egiten den mugarrien berrikusketan. Hiru egunetan, Sara, Sempere, Ainhoa, Ezpeleta, Itsasu, Bida-

rrai, Baigorri, Aldude, Banka eta Urepeleko mugak berrikusi dituzte, guztira 52,114 kilometro.

Iruritako Jauregiak arrakastaz ireki ditu ateak

Arte Garaikideko museoa bihurtuta, Iruritako Jauregiak buruilaren 1ean zabaldu zituen bere ateak. Lehendabiziko hilabetean jende aunitz hurbildu da Jauregiraino, bertako etxe baten historia ezagutzera. Nagusiaren helburuetariko bat herriko eta inguruko jendeak eskualdeko historiari buruz pixka bat gehiago jakitea da. Bisitaldiak goizez eta arratsaldean egin daitezke, 11:00etan eta 17:00etan. Barrenera sartzeko bertz euro ordaindu behar dira. Halere, ortziraletan Bertiz Patzuergo Turistikoaren bidez bisitak dohainik dira.

Oronoz-Mugairiko eskolako obrak

Oronoz-Mugairiko eskola haunditzeko lanak Elizaide Eraikuntza enpresak egiten ditu. Hainbat enpresaren eskaintzak jaso ondok, Elizaideren eskaintza onartzea erabaki du Udalak «*abantailazkoena*» dela iritzita. 99.775,93 eurotan esleitu dira obrak.



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

Artzain eguna giro ederrean

Goizean goiz hasi zen mugimendua Elizondon irailaren 21ean, artzainen bestaren harira. Merkatu Plazak *Euskal Sheep Camp* izena hartu zuen, eta zaldunek harat eramane behar izan zituzten ardiak. Horrez gain, hiru karro-kanpo ere ikusi ahal izan ziren, Kalifornia, Nevada eta Arizonan bizileku zituztenak irudikatuz. Lur azpian sua eta brasa egin eta bi zulotan ogia eta haragia egiten ere ikusi ahal izan zen. Horrez gain, txistulariak, mutil dantzak... Bazkarian eskualdeko jendeaz gain, Euskal Herritik zein AEBetatik etorritako 700 lagun baino gehiago bildu ziren. Egun ederra igaro zuten denek elkarrekin.

Iñaki Alzuiet margoak
 Fabaak - Barnealdeak
 Dekorazioa (esteko, belodunak...)
 Plazurra - Lakatuak eta barnizatuak kabinan
 Kamiotea Elxoa - Landibar Auzoa - 31711 URDAZUBI
 Tfnoa: 659 862 417

MENDI ostatua
 Santiago 25
 948 580 313
 ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea
 T. 948 453 060
 N-121-B, 66. km
 AMAIUR

BAZTAN

Gartzaiingo Pilarika Bestak urriaren 10etik 13ra

Besten hurrengo larunbatean desafioa egingen dute Xegone eta herriko bi gaztek

Ortzileria 10

Mezpera

18:00etan txupinazoa beste hasiera emateko. 22:00etan Baztan Zopak Trinketean. **Ondotik** gaupasa MIKEL SALABERRI akordeoi-lariarekin. 06:00etan zinger jatia.

Launbeta 11

Haur eta Gazteen Egune

10:00etan diana eta argi-soinuak. 14:00etan gazte bazkarie Aizano-ko labadorean. 16:00etatik 19:00etara Gorriti eta bere animaliak. 17:00etan gazte jokoa eta zerrikume harripaketa. Txokolata haurrendako. 20:00etan triki-bertso poteoa Julio Soto eta Erika Lagoma bertsolariekin. 21:30ean Mutil Dantzak. **Ondotik** patata tortilla jatea frontoian. 00:00etan kontzertua UFESTUEK taldearekin. **Segidan** gaupasa GARRAXI taldea-

rekin. 06:00etan zinger jatea eta kantzontzilo lehiaketa.

Igendia 12

Pilarika Egune

10:00etan diana eta argi-soinuak. 12:00etan Meza Pilarika ermitan. **Ondotik** luntxa. 18:00etan mus zimizte txapelketa. 20:00etatik 22:00etara dantzaldia MIKEL SALABERRIrekin.

Astlehena 13

Herritarren Egune

12:00etan txiste lehiaketa zilo beltzen. 14:00etan zikiro jatea eta trofeo banaketa. 22:00etan Mutil Dantzak eta luntxa. **Atsaldetaz eta gauz dantzaldia** MIKEL SALABERRIrekin. **Goizaldean** Gaizua Ni.

Launbeta 18

13:30ean desafioa: Xeon eta Gartzaiingo bi gazteren artean.



ARGAZKIAK: MAITE ETXENIKE

Zikiro jatea eta gazte bazkaria aurten ere hutsik egingen ez duten bi ekitaldi izanen da. Argazkietan bezala, seguru oraingoan ere ez dela umorerik faltako.

Promociones Lindutx Baztan, S.L.
Baztan Berri Plaza, 6 behea 31700 Elizondo
Tel. 948 580 344 Mug. 676 509 312
info@lindutx.com
www.lindutx.com

ELIZONDO
BAZTAN

AUKERA PAREGABEA
PREZIO EZIN HOBEAK
azkeneko 3 pisuak
SALGAI

ELVI

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatu

Tfnoa.: 948 581 468
Mug.: 630 354 818

Santiago, 59 2C
ELIZONDO

BAZTAN

Inguruko herrietako eskolen besta eginen da igandean Amaiurren

Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolak elkartuko dira

Maite OTEIZA

Eskolak «*herrikoak, euskaldunak eta publikoak*» direla aldarrikatzeko Urdazubi, Zugarramurdi, Amaiur, Azpilkueta, Erratzu, Arizkun, Garzain, Irurita, Ziga, Almanoz, Arraioz eta Oronozko eskoletako gurasoen antolatuta, eskolen besta eginen da igande honetan, urriak 5, Amaiurren.

11:00etan Arizkongo Lamirritan elkartuko dira oinez Amaiurrera joateko. Behin harat ailegata, 12:30ean herri kirolak izanen dira Amaiurko plazan. 14:00etan bazkaria eginen da, norberak etxetik eramandakoarekin. Arratsaldean, 16:00etatik 18:00etara dantzaldia izanen da.

200 lagun Donejakue Bidean

Ez da denbora aunitz Baztan-Urdazubi aldeko Donejakue Bidea mar txan paratu zenetik, baina harrera ona izaten ari da. Urdazubi eta Baztango Santiago Bidearen Lagun Elkarteak badi kontentegoteko motiboa, inguruko zein atzerriko jende andana ibili baita. Urdazubiko aterpean, erraterako, abuz-

tua bitarte ehun bat lagun pasatu ziren: frantsesak, belgikarrak, alemaniarrek, txekiarrek,

argentinarrek, libanoarrak, euskal herritarrek, espainiarrek... Berroetako aterpetxeak ere eran-

tzun ona izan du. Euskal herritarrek, espainiarrek, frantsesak... hainbat tokitako jendea ibili da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Brasilgo atezain bat fitxatu eta Lindutx Baztanekin hitzarmena sinatu du BKTk

BKT Baztango Kirol Taldeak babesle berria du denboraldi honetan. Irailaren 16an Elizondoko Errota elkartearen Lindutx Baztan Eraikuntza enpresarekin hitzarmena sinatu zuten. Akordioaren arabera, 2008-2009 denboraldian Baztango Kirol Taldeak Lindutx Baztan BKT izena eramane du. Lindutx Baztanen izenean Aitor Nuñez eta Iñaki Unanuak parte hartu zuten ekitaldian, Baztango Kirol Taldearen izenean, berriz, Belen Urrutia lehendakariak, Ines Izeta lehendakariordeak, Txus Sobrino idazkariak, Mari Jose Mortalena diruzainak eta Goizalde Urdanpilleta bokalak. Aipatzekoa da, BKTk zuzendaritza berria duela eta ekitaldian aitzineko batzordeari eskerrak eman nahi izan zizkiela, egindako lana eta eskainiko laguntza eskertzeko. Horrez gain, bazkide nahiz etorkizuneko babesleei laguntza ere eskatu zieten. Bertalde, aipatu, fitxaketa berria egin duela BKTk. Talita Daiana brasildarra da. Daiana 1985eko urtarrilaren 26an jaio zen Brasilgo Mirasol herrian, 1,71 metroko garaiera du eta 65 kilo pisatzen ditu. Baztanera etorri aitzinetik, Brasilgo Esporthe Guarulhos eta Espainiako Ohorezko Mailan ari den Santardergo Marina Park taldeetan ibili da. Nazioarteko jokalaria izandakoa da oinarrizko mailan eta juniorretan. Atezaina da eta aurtan Lindutx Baztan BKTk eginen duen fitxaketa bakarra da, lehen mailako atezainik ez zuelako. Gainerako postu guztiak bertako eta bertze kategorietako jokalariekin osatu dituzte BKTko talde nagusiak.

FLASH

Elbeteko bestetako zozketa

Elbeteko besten barne egindako zozketaren zenbaki saridunak jakinarazi dira: lehenbiziko saria –lau lagunendako afaria– 1.668 zenbakia-erantzat; bigarrena –kafemakina– 4.871 zenbakia-erantzat eta hirugarren saria –bi gasna– 5.534 zenbakia-erantzat. Bertzetik, aipatu, **ttipi-ttapa**ren 477. alean agertu zen Elbeteko besten egitarauan, argazkien azpiko testuan oker bat egon zela: Maurixio eta Felix txistulariak ageri zirela paratu zen, baina, Maurixiorekin ageri zena Manuel Jaurena zen.

Berrikuntzak Almandozen

Almandozko haurrek eskola inaguratzekin, ez dira akitu herrian egiten eta eginen diren berrikuntzak. Izan ere, Jaurregia goitik beheiti berritzen ari dira, eta dagoneko agerian gelditzen ari da etxe honen edertasuna. Frontoian ere obrak egiten dira, egitura eta teilatua konponduz. Saneamendu lanak ere hastear daude.

Etxebertzek ONCEko saria banatu du

ONCEko saltzailea den Patxi Etxebertz erratuarrak 35.000 euroko saria banatu du berriki gure eskualdean.

Urtasun eta Gurrutxaga txapeladun Altsasun

Gorka Urtasun iruritarra eta Gurrutxaga bikoteak Altsasuko Otadiako Santo Cristo Pilota Txapelketako txapela jantzi dute, Baez II.a eta Lopetegiri 22 eta 7 irabazita.



SOULE

hileta artea

Tfnoa. 948 453 444

Mug.: 629 659 583

ARIZKUN



SENPERE

Amotzeko Larraldea ahozko literatura maite dutenen bilgunea izan da

Bertzetik, Pierre Hirigoyen irakasle saratarraren heriotzak tristezia sortu du inguruan

Franck DOLOSOR

Kantu Xaharren zazpigarren egunean gaitzeko giroa sortu zen gan den buruilaren 21ean. Lehen aldikotz, Amotzeko Larraldean ospatu zen besta hau eta kantu bazkarian parte hartu zuten 80 lagunek egun ederraz eta ahots ederretaz gozatu zuten. Oxtikenekokak elkarteak kantuak grabatu ditu aurten ere eta noizbait diska bat argitaratu ahal izanen dute.

Bertzalde, ez dute baztertzen liburu berri bat ateratzea. Euskaltzaindiak Lafitte kalonjera zenaren liburu bat eman diote eta bornean Senpereko kantuak agertzen dira. Altxor ederra, dudarik gabe, ahozko literatura maite dutenentzat.

Tristezia herrian

Pierre Hirigoyen Arretxea kolegioko zuzendaria eta espainol



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

80 lagun inguru elkartu ziren buruilaren 21ean Larraldean egin zen Kantu Xaharren Egunean.

irakaslea izan da denbora luzean eta bere heriotzak samin handia sortu du ezagutu dutenen artean. Urteetan, ehunka gazte eta gurasoen lagun bilakatu da. Bere ikasleak izan garenok ez dugu sekulan ahantziko harekin ikasi eta bidaie-tan ikusi dugun guzia, izan daiteken gizon eta eskola emaile onena izan baita. Milesker eta ez adiorik Hirigoyen jauna...

Munduko Trinkete Kopa gibeleratua

Olivier Haroçarene pilotariak parte hartu behar duen Munduko Trinkete Kopa gibeleratua izan da hazilerat. Azken asteetan ekaitz gogorak jasan dituzte Kuban eta kalte handiak sortu dira. Aitzinero ttipi-ttaparen alean aipatu den zoingehiagoka hazilean eginen da, beraz, Habanan.

Uholdeen gastua

259 000 euroko gastua sortu dute uholdeen kalteak mugatzeko karrika ondoan egin diren lanek. Hiru urte iraun duten lan hauei esker uraren isurtzea errezagoa izanen da Inarga aldean eta plazako errotaren inguruan.

Dirulaguntzen bitartez pagatu da lanen %70 eta gainerakoa Herriko Etxeak eta He-

go Lapurdiko Herri Elkargoak ordaindu dute.

Sukaldaritza ikastaroa

Sukaldaritza ikastaldiak eskainiko dituzte heldu den urriaren 8tik landa *Pots d'échanges* elkarteak eta Herriko Etxeak. Interesa duenak dei dezake zenbaki honetatik: 06 98 48 64 64.

Barnetegi berria lizeoan

Saint Christophe laborantza eta natura lizeoan barnetegi berria estreinatuta dute. Barnetegi honetan 120 gazterentzat bada toki, 90 mutil eta 30 neskerentzat.

Beñat Antxordoki baxe nafartarrak zuzentzen duen lizeoan 200 ikasle dabilta aurten. Diploma emateaz gain, lanbide interesgarri bat atzemateko parada eman nahi diote gazteei.

Maderas
GOMEN
Tel: 948 580 645
Zaldubia industrialdea
IRURITA

- Era guzietako atek, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 · 948 581 853

SARA

Ikatzka egiten ikusten ahalko da Garbalan urriaren 13tik 18ra

Xalbat Biloriako ikazkinak bi txondor eginen ditu

Xan HARRIAGUE

Aste batez Xalbat Biloriako ikazkinak bi txondor eginen ditu Garbalan. Era horretan ez da ia-ia ikatzik egiten, eta oso gutxi gelditzen dira hori egiten dakiten pertsonak. Xalbat horietariko bat da, eta adinean aitzinera badoa ere, bere eskarmentua erakustea onartu du.

Astelehena, asteartea, ortzeguna eta ortzitala eskolentzat izanen da, eta asteazken eta larunbatean nahi duten guztientzat. Bisita egin nahi duten eskolek erreserbatu behar dute (0033) 559 542014 zenbakira deituz, eta informazio gehiago nahi dutenek zenbaki berera deitzen ahal dute.

Bestak giro ederrean

Aurten ere ederki pasatzen dira herriko bestak. Larunbatean denborak ez zuten lagundu, baina

hortik aitzinera eguzkia izan zen nagusi. Igan-dea izan zen dudarik gabeko egun arrakastatsua herriarren eta kanpotarren artean. Karroren desfileak ikusmina piztu zuen urte guziz bezala, eta milaka lagun bildu ziren plazako errebotean. Ahate jokoak ere ez zuten hutsik egin, eta herriko zaldunek ohiturari segida ematen jakin zuten.

Bezperan, Sara Korrikak lasterketa antolatu zuen, eta ia bezala Fernando Etxegarai beratarak irabazi zuen 37 minutu eta 52 segundoko denborarekin. Ondotik Rafa Maritxalar lesakarra arribatu zen. Horrek 38 minutu eta 40 segundoko behar izan zituen ibilbideak dituen 10 kilometroetan betetzeko. Patxi Iratzoki igantziarrak osatu zuen podiuma.

Asteazkeneko kabalaren txapelketan animalia politikak ikusi ahal izan



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Xalbat Biloriako ikazkina duela bi urte egindako txondorrean.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Igandeko karroren desfileak ikusmin handia sortu zuen urte guziz bezala.

ziren. Txapelketa handia ez bada ere, herriko laborari andanak parte hartu zuen. Behi gorritan Panpi Elizalde Elordiako irabazi zuen, idi gorritan, berriz, Jamatit Labordek. Esnerako behietan Hauziartzea eta

Hauziartzeko Bordako Lagunarte ustiapen elkartek aurketu zuen animaliarik politena, eta behi beltzetan Ozkoidik. Ardiei dagokionez, Patrick Iribarrenek irabazi zuen txapelketa, eta behorretan Ramuntxo Agirrek.

Mendi bizikleta

Gan den igandean iragan zen herriko mendi bizikleta ibilaldia. Urte guziz bezala, ehunka txirindulari bildu ziren antolatzaileek prestatu zuten ibilbide berria inaurtzeko.

MONTXO OSTATYA

Dantxarinetik 2 km-tara

ТАВЛAKO-DENDА ANZAN-BORDA · ВРДАZYBI

Egunero irekia 10:30etik 02:30era

HERRIKO ETXELKO EDANTEGIA

CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542519
Maixan eta Véronique

SARA

ARMUA JATETXEA

T: 948 599 131
Zugarramardiko errep. 3 km
URDAZUBI

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
AUDI

MARKA GUZTIEN KONPONKETA

Banarta, 2 · Alkaiaga industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 · Faxa: 948 625 505

ZUGARRAMURDI

Inkiszio garaian eramandako herritarrak gogoan ekitaldi gehiago egingen dira azaroan

Bertsokak eta musika bateratuz egun bereziak antolatu dituzte azaroaren 29 eta 30erako

Koro eta Margari

400 urte beteko dira laster Inkiszioak Zugarramurdiko hainbat jende preso eraman, sorgintzat hartu eta gogor zigortu zituenetik: 1610. urteko azaroan izan zen epaiketa.

Afera hori dela eta, herritar haien oroimena nolabait garbitu nahian ekitaldi desberdinak antolatuko dira. Batzuk da goeneko egin dira, ekaineko Sorginaren Eguna bezala, eta bertze batzuk bidean daude.

Sorgin ehizaren kontuarekin, azaroaren 29an eta 30ean musika eta bertsokak uztartuko dituzten ekitaldi batzuk eskainiko dira. Horietan musikari, bertsolari eta eskoletako haurrek parte hartuko dute. Horren harira, sorginen gaia hobeki



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Toti Martinez de Lezea idazlearen hitzaldiak jendearen arreta bereganatu zuen.

ezagutu ahal izateko irailaren 18an Toti Martinez de Lezea idazleak hitzaldi bat eman zuen Zugarramurdiko eskolan.

Hitzaldia hau lan horretan ariko dirennei zuzendua izan zen batez

ere, hau da, irakasle eta bertsolarientzat (Amets Arzallus, Maialen Lujanbio eta Estitxu Arozena tartean). Baina Baztango eskola txikitako irakasleak ere gonbidatuak izan ziren. Gainera, hain-

bat guraso eta interesatuak zeuden batzuk ere etorri ziren, eta denetara 30 bat lagun elkartu ziren Totiren hitzaldira.

Azaroa hurbildu ahal, ekitaldien berri zehatzak emanen ditugu.

Mendi ateraldiak

Udako bi hilabeteetan atsedena hartu ondotik, berriz ere martxan dira Axuria Mendi Taldekoak. Hemendik aitzinera egingen diren ibilaldiak aldaketa batekin izanen dira: hirugarren igandean atera beharrean, hilabete azkeneko igandean aterako dira.

Uda ondotik ederki hasi dira, iraileko ibilaldia berezia egin baitute: itsasoko kosta partean ibili ziren Hondarribitik Donostiaraino eta ondotik Donostiako Kasaka Zuri jatetxean bazkaldu zuten. Azken hiru hilabeteetako irteerak toki hauetara dira: urrian errotetara, azaroan Belateko Santiago Bidera, eta abenduan Aiako Harrietara.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



EZKONTZAK

Luis Fernando Rodríguez Díaz eta **Eka-terina Viktorouna**, Madrilgoa eta Erru-siakoa, irailaren 6an Beran.

Daniel Cebolla Tatay eta **Jone Fagoa-ga Etxarte**, Sueca-Valentziakoa eta Le-sakakoa, abuztuaren 30ean Lesakan.

Jon Arsuaga Otaegi eta **Amaia Tapia Altugarai**, Donostiakoa eta Lesakakoa, irailaren 6an Lesakan.

Asier Rebollo Gartzia eta **Estibalitz Gamio Lizasoain**, Lesakakoa eta Dona-mariakoa, ekainaren 28an Lesakan.

Jaime Monleon Peinado eta **Naiara Ilun-daiar Ruiz**, Bartzelonakoa eta Iruñekoa, irailaren 13an Etxalarren.

Iñigo Apezetxea Salaberria eta **Ana Isa-bel Esain Nebour**, Goizuetakoa eta Iru-ñekoa, irailaren 13an Elizondon.

Gorka Obeso Intza eta **Ana Belen Sein Petrikorena**, Lesakakoa eta Igantzikoa, irailaren 13an Igantzin.

Nicholas Etxeberria eta **Edith Daman-ce**, irailaren 13an Saran.



SORTZEAK

Aiyana Gomes Villanueva, Berakoa, irailaren 2an.

Ane Errandonea Garbalena, Berakoa, abuztuaren 28an.

Aitor Etxegarai Elgorriaga, Berakoa, irailaren 16an.

June Salgado Solo, Lesakakoa, irai-laren 4an.

Eneko Sanzberro Iturburua, Erratzu-koa, irailaren 5ean.

Oier Ibañez Apezetxe, Iruiritakoa, irai-laren 10ean.

Laura Nerea Elizetxe Segales, Eli-zondokoa, irailaren 13an.

Narrea Iparragirre Meoki, Elizondo-koa, irailaren 16an.

Aiora Andiarena Villanueva, Ezkurra-koa, irailaren 23an.

Sarah Lorea Endara Flagnes, Sara-koa, irailaren 12an.

Xabi Pradere, Sarakoa, irailaren 16an.



HERIOTZAK

Juan Irujeta Petrireña, Sunbillakoa, irailaren 10ean, 81 urte.

Domingo Irungarai Alkasena, Ariz-kungoa, irailaren 20an, 57 urte.

Asuncion Etxandi Almandoz, Dona-marikoa, irailaren 10ean, 94 urte.

Leokadia Goñi Astiz, Donamarikoa, irailaren 16an, 91 urte.

Martina Marzol Labaien, Aresokoa, irailaren 22an, 91 urte.

Pierrot Hirigoien, Sarakoa, irailaren 22an, 66 urte.



Fermin LARRETXEA BIURRARENA

Arantzán, 2008ko abuztuaren 29an, 95 urte zituela

Istoriokontalari eta kantari hobea edonon aurkitzen zenun bizitzaren kolorea jendartean gozamina pizteko zinen trebea mundu guztian arreta egiten zenun zurea (bis)

Zuk gurekin utzi duzun poza eta umorea emandako maitasunak indarra du ondarea atautxi guzti-guztia gurekin dugu gordea zu ezagutu izana ze nolako ohorea (bis)

ZURE FAMILIA



Ane GONZALEZ

Lesakan, 2007ko irailaren 28an

I. URTEURRENA

Urte bat pasa da gertatu zenetik, aurrera egin behar ez dago besterik. Zure irria gogoan, ez da tristurarik. Muxu haundi bat eta ez adiorik.

INTZIBERRIKO FAMILIA



Leokadia GOÑI ASTIZ

Donamarian, 2008ko irailaren 16an

Argi bat itzali da hemen lurrean Berri bat piztuko da han zeru ederrean Gure oroimenean izanen zara betiko Ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik.

ZURE FAMILIA

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten guzietan, mila esker.

TXIRRINDULARITZA

Igantzi, Lesaka eta Berako Bizikleta Ibilaldiak egin dira azken igandeotan

Hiru itzuliak ez dira lehiakorak eta denborak ez dira kontuan hartzen

ttiipi-ttapa

Mendi Bizikleta Ibilaldiz beteriko asteburuak izan dira Bortzietan azken hauek. Lehena Igantzin jokatu zen irailaren 14an; bigarrena irailaren 21ean Lesakan eta hirugarrena irailaren 28an Beran.

IGANTZIN, 23 KILOMETRO

Igantziako Biltoki Elkarteak antolatuta, mendi bizikleta ibilaldiaren XVIII. edizioa egin zen irailaren 14an. Saio ez kompetitiboa izan zen eta 52 txirrindulari elkartu ziren irteera puntuan, 23 kilometroko ibilbideari aitzin egiteko prest. Aurrepegi ezagun aunitz ikusi ziren tartean: kade-te mailako Nafarroako txapeladuna den Aitor Begino igantziarra; Ciclos Iñaki taldean ari den Joxe Mari Goia herriko txirrindulari beterranoa; Beñat Txoperena junior mailan mendi bizikletan Nafarroako txapeladun eta errepedean Caja Rural taldean ari den igantziarra; jautsieretan Nafarroako, Euskal Herriko eta Espainiako txapeladun izan den Xabi Telletxea igantziarra edo urtetan mendi bizikletan eta ziklokrosean aritutako Juan Carlos Garro. Horiez gain, maila apalagoan aritzen diren bertze hainbat txirrindulazale ikusi ziren.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Igantziako mendi bizikleta ibilaldiaren hamalagarren edizioa izan da aurtengoa. Argazkian txirrindulariak irteera puntuan ageri da.

Helmugan, nahiz eta sailkapen ofizialik ez izan Joxe Mari Goia herriarra izan zen lehena. Bigarren postua bertze igantziar batek lortu zuen, Biltokiko Aitor Almandozek, eta hirugarrena Joxe Mari Goiaren taldekide batek eskuratu zuen: Urko Munduatek.

Bertzalde, helduek ibilbide luzea egiten zuten bitartean, ttikienek ere mendi bizikletara; afizioa zutela erakutsi zuten, herrian barne egindako ibilbidean. 15 neska-mutiko atera ziren eta ibilbide guzira asfaltatua zenez, ez zuten lohi haundiegirik hartu. Hauek ere ez zuten kompetiziorik, baina jakina, irabazteko gogoia bai. Halere, gurasoek eta ikusleek txalo

berdin-berdin sari-tu zituzten lehenbiziko sailkatutakoa eta azkenekoa. Txaloez gain, bertzelako sariak ere banatu zizkieten antolatzaileek neska-mutikoei.

LESAKAN BI IBILBIDE AUKERAN

Igantziakoaren ondorekin, Lesakak hartu zuen lekukoa. Beti Gaztek antolatutako Lesakako mendi bizikleta ibilaldia irailaren 21ean egin zen. 94 parte-hartzailek eman zuten izena eta bi ibilbide izan zituzten aukeran, 25 eta 36 kilometrokoa. Hau ere ez zen proba lehiakorra izan. Ibilaldi honi buruzko xehetasun gehiago Lesakako kronikan, 9. orrialdean, aurkituko dituzue.

BERAN HIRU IBILBIDE AUKERATZEKO

Irailaren 28an Beraren txanda izan zen eta Berako Mendi Bizikleta Ibilaldiaren XVI. edizioa jokatu zen. Aitzineko aldietan bezala, txirrindulariek hiru ibilbide izan zituzten aukeran: 28 kilometrokoa, 16 kilometrokoa eta 5koa ttikienentzat. Hau ere ez zen ibilaldi lehiakorra izan eta denborak ez ziren kontuan hartu. Lerro hauek idazterakoan oraindik ez genuen lasterketaren nondik norakoen berririk eta hurrengo alean kontaktuko ditugu xehetasunak. Dena den, aipatu, joan den urteko edizioak inoiz baino parte-hartze handiagoa izan zuela, 114 lagunekin.

SKATE OLINPIKOA

Fagoagatarrak jaun eta jabe Espainiako Txapelketan

ttiipi-ttapa

Itsaso Fagoaga, 18 urteko gazte lesakarrak Nafarroako eta Espainiako Skeet Olinpiko txapelketak irabazi ditu berriki. Zehazki, abuztuaren 24an Elizondon jokatu zen Nafarroako txapelketaren finala eta Itsaso izan zen emakumeen artean txapeladun. 50 plateletatik 45 haustea lortu zuen. Sailkapen orokorrean, gizasemeak eta guzi kontuan hartuta, bigarren izan zen. Aipatzekoa da sailkapen orokorrean txapeladun Itsasoren aita, Antonio Javier Fagoaga izan zela. Beraz, aita txapeladun eta alaba azpitxapeladun izan ziren Nafarroako Skeet Olinpiko txapelketan. Nafarroakoaren ondoitk, Espainiako txapelketa jokatu da irailaren 13 eta 14an, Madrilgo Cantoblancon. Espainiako txapelketan ere, emakumezkoen artean txapeladun izan zen Itsaso, bigarren sailkatuari bederatzita platerako aldea ateraz. Sailkapen orokorrean, gizasemeak eta guzi kontuan hartuta, 12. postuan sailkatu zen Itsaso. Antonio Javier Fagoaga aita, berriz, 9. izan zen sailkapen orokorrean eta hirugarren, bere kategorian.

HERRI KIROLAK

Nafarroak irabazi du seigarrenez Zazpi Herrialdeen arteko txapelketa

Nafarroako taldea ordezkatu zuten gehienak eskualdekoak izan ziren

ttipi-ttapa

Nafarroak bortzgarren urtez segidan irabazi zuen irailaren 13an, Donostian, Zazpi Herrialdeen arteko herri-kirol txapelketa. Nafarroako taldea zen faboritua eta seigarrenez erdietsi zuen txapelketa, alde handiz, gainera, 62 puntu lortuta. Bigarren Gipuzkoako taldea izan zen (53 puntu), eta Bizkaikoa hirugarren (49 puntu). Lapurdi laugarren sailkatu zen (37 puntu), bortzgarren Araba (33 puntu), seigarren Zuberoa (22 puntu) eta Nafarroa Beherea zazpigarren (21 puntu).

Txapelketaren XX. aldia izan zen Donostia-koa, eta 150 kirolarik hartu zuten parte hamar kirol ezberdinetan: sokatira, koxkor biltzea, txinga eramatea, zaku-eramatea, lasterketa, harri-jasotzea, ingude-altxatzea, lasto-altxatzea, orga jokoak, arpana eta aizkora. Nafarroako taldeari dagokionean, eskualdeko ordezkariak zabala izan zen.

Harri-jasotzen, Unai Bertiz sunbildarrak ordezkatu zuen Nafarroa eta 33 jasoaldi egin ondok modalitate honetan irabazle atera zen. Ostotzatza gipuzkoarrak ere altxaldi kopuru bera egin zuten, baina horrelakoetan bi kirolarietan guttien pisatzen duenak irabazten du eta Bertizek eraman zuen garaipena. 100 kiloko harriari bi minutu-



ARGAZKIA: LEGARRA

Nafarroako taldean aritu ziren kirolari eta prestatzaileak, tartean eskualdeko ugari.

ko denboran ahalik eta jasoaldi gehien eman behar izan zizkion.

Txinga-eramate proban leitza bat aritu zen Nafarroako taldean: Miel Angel Sukuntza. Nafarroa mailan txapeladuna dena hirugarren gelditu zen Araba eta Gipuzkoaren ondok. Guztira 17 untxe eta 22,54 metro egin zituen. 50 kiloko bi txingekin ahalik eta metro gehien egitea zen eraren egin beharra.

Ingude-jasotze proban Josetxo Urrutia leitzaordezkatu zuen Nafarroako taldea eta 18 kiloko ingudeari 87 altxaldi eman zizkion minutu eta erdian. Saikalen nagusian bigarren gelditu zen.

Lasto-altxatzen ere eskualdeko bat aritu zen Nafarroako taldean eta garaipena lortu zuen gainera. Iñaki Bereau igantziarrak 21 jasoaldi egin

zizkion 45 kiloko fardoari, bi minutuko tartean.

Gurdiarekin, berriz, Joseba Petrirena berratarra aritu zen Nafarroarekin. 350 kiloko gurdi hartu eta zeinek bira gehien ematea zen kirolariaren lana. Beratarrahiru bira, 10 laurden eta 1,50 metro egin zituen eta sailkapen nagusian hirugarren gelditu zen.

Sokatiran, azkenik, Nafarroako taldean Amaiur taldeko tiratzaileak aritu ziren. Joxe Urrutia amaiurtarraren agintuetara, Fermin Iparagirre, Toni Uharte, Iñaki Iriarte, Juan Mari Irigoien, Joxemi Bengoetxea, Esteban Mendiburu, Agustín Ariztia, Mieljoxe Ariztia eta Joxe Antonio Iriarte aritu ziren. Bengoetxea kenduta –hau Zugarramurdikoa da–, gainerakoak baztandarrak dira. 640 kilotan zortzi tiralarari aritu ziren eta li-

gaxka sistemaren bitartez, talde guztiak denon kontra aritu ziren. Sailkapen nagusian Amaiur taldekoak hirugarren gelditu ziren, nagusitasunez aritu zen Bizkaia eta ederki moldatu zen Lapurdi-ko taldearen gibeletik.

Gainerakoan, aipatu, koxkor biltzen Nafarroa izan zela bizkorrena; ingude altxatze proba Bizkaia irabazi zuen; lasto eta harri-altxatzen Nafarroa atera zen garaile; txingak garraiatzen Araba izan zen hoberena; gurdiarekin Zuberoa; zakuarekin Nafarroa; arpanarekin Gipuzkoa; aizkorekin Nafarroa eta sokatiran, azkenik, Bizkaia. Honek tiraldi guztiak bereganatu zituen.

XX. edizioa Donostian jokatu, heldu den urtean Nafarroak hartuko du Zazpi Herrialdeen arteko txapelketaren lekukoa.

Federazioko karguak aukeratzeko hauteskundeak

ttipi-ttapa

Hasi da Nafarroako Herri Kirol Federazioko hauteskunde prozesu berria. Hala jakinarazi zuen joan den astean Federazioak. Asteazkenean, urriaren 1ean, abiatu zen eta horren bitartez, hurrengo lau urtetarako federazioko batzarra eta lehendakaria hautatuko dira. Urriaren 13tik 15era zabalduko da batzarrerako hautagaiak aurkezteko epea eta urriaren 25ean batzarrerako kideak aukeratzeko botazioak egingen dira. Lehendakari kargurako hautagaiak aurkezteko epea, berriz, azaroaren 5etik 7ra zabalduko da. Azken zortzi urteotan Joxelu Retegi igantziarrak bete du postu hori. Azaroaren 22an lehendakariaren aukeraketa egingen da. Edozein zalantza izanez gero, Sunbillan Nafarroako Herri Kirol Federazioak duen bulegora jo daiteke, 948 450900 telefonora deituz edo herrikirolaknafarroa@hotmail.com helbidera idatziz. Hauteskunde arautegia ikusi nahi duenak Nafarroako Kirol Institutuan edota Federazioren egoitzan aurki dezake.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

HITZALDIAK

LEITZA

Urriaren 3an, *Fazas autóctonas en peligro: betizus, jaca navarra y caballo burguete* izeneko hitzaldia, 19:00etan.
Xehetasun gehiago 34. orrialdean.

IKASTAROAK

LESAKA

Urriaren 11n, 18an eta 25ean, komikigintza tailerra. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Topaguneak antolatuta. Xehetasunak 8. orrialdean.

ELIZONDO

Urriaren 11 arte, Ander Olaizolaren argazki erakusketa Arizkunenean. Asteleheneetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara.

BERA

Urriaren 11n, 18an eta 25ean, komikigintza tailerra. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Topaguneak antolatuta. Xehetasunak 8. orrialdean.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Urriaren 11 arte, Ander Olaizolaren argazki erakusketa Arizkunenean. Asteleheneetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara.

AMAIUR

Urriaren 11n, 18an eta 25ean, komikigintza tailerra. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Topaguneak antolatuta. Xehetasunak 8. orrialdean.

TELEBISTAKO TXOKOA



SANDRA LEGASA



LOREA AGIRRE

NUTRIZIOA

Nutrizio saioarekin abiatu du denboraldi berria telebistak

SANDRA LEGASA ETA LOREA AGIRREK AURKEZTUTA

Aitzineko aleetan iragarri bezala, **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** nutrizio saio berria estreinatu zuen joan den astean. Hemendik aitzinera, beraz, Sandra Legasa Lesakako Orea belar-dendako eta Lorea Agirre Doneztebeko Kimetz belar-dendako dietistek euren ahoku eta gomendioak luzatuko dizkigute asteazkenetan, batean batek eta bertzean bertzeak. Goiko argazkian ageri diren horiek dira **TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN** denboraldi berriko nutrizio saioko protagonistak. 20:00etako albistegiaren ondotik emitituko da nutrizio saioa. Ortzegun eguerdian emanen da errepikapena.

ORTZIRALEKO ERREPORTAJEAN MENTXU PEÑAREKIN

Saio berriez gain, **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** orain arteko die denboraldi honetan. Hala, ortziral honetako, urriaren 3ko, erreportajearen Mentxu Peña mendizalearekin egonen dira. Mentxu sortzez irundarra bada ere, duelea 18 urtetik Arantzan bizi da. Joan den urtean Marimendi Euskal Herriko 40 urtetik goitiko emakumezko mendizale euskaldunen taldean sartu zen eta uztailean Kaukaso mendilerroan ibili zen taldearekin. Horiek eta bertze hainbat kontu azalduko dizkigu, erran bezala, ortziral honetan.

DISKAK



Ilun

SOILIK

BAGA-BIGA, 2008

2002ko neguan hasi, eta poliki-poliki 2004an sortu zen Soilik taldea, Anathema, Katatonia, Paradise Lost... bezalako talderen eragin argiarekin. Taldeari Soilik izena paratu zioten eta urteetako lanaren ondotik aurreten atera dute euren lehendabiziko lana: *Ilun*. Zortzi abesti triste eta melankolikoak dira baina aldi berean «indartsuak», euren hitzetan. *Ilun*euren lehendabiziko argitalpenean, rockak, popak eta metalak bat egiten dute. Taldea lau lagunek osatzen dute. Miriam ahotsa da, bateria Jabi, baxua Ion eta gitarra Orzi. Informazio gehiago nahi izanez gero, *myspacen* euren ataria sortu dute: www.myspace.com/soilikiluna. Argazkiak, kantak, kontzertuak, bideoak... Horiek eta bertze hainbat gauza ikus daitezke web orrian.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (irailaren 12tik 19ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 32,00 € (+5,00)

Zerri gizena
1,248 € kilo. (-0,050)

Zerramak:
0,620€ Kg/bizirik. (=)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,07 (=)

1.koa 3,77 (=)
2.koa 3,08 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,17 (=)

1.koa 3,87 (=)
2.koa 3,18 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 168,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,10/3,20
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 8,10/8,90
8-10 kilokoak: 7,10/7,60

JAKIN BEHARREKOAK

Telefonicak deien identifikazioengatik kobratutakoa erreklamatu du Irachek

Kaltetuek Irachera jo dezakete erreklamazioa tramitatzeko

Uztailaren 10ean zerbitzu pakete bat kontratatua ez zuten bezeroei identifikazio zerbitzua kobratzen hasia da telefonia konpainia, hau da, ADSL edo tarifa jakinik kontratatua ez dutenei. Urritikaitzina, ordea, bere sei milioi erabilzaileei pasatuko die faktura. Telefonica automatikoki hasiko da kobratzen zerbitzu hau, eta interesatua ez dagoenak berak jakinarazi beharko dio Telefonitari, 1004 telefonora deituz. Honek, noski, kontsumitzaileen artean haserrea eragin du.

Irache Kontsumitzaileen Elkarteak horrelako jarduera komertzialak «guztiz gehiegizkoak» direla salatu du, eta kontsumitzaileak doako zerbitzu horretara ohitu direnean kobratzen hastea leporatu dio. Horrez gain, «are okerra-



Telefono konpainien «gehiegikeriengatik» haserretzen dira gehien kontsumitzaileak.

goa da kontsumitzaileak berak eman behar izatea zerbitzuan baja, bertzela automatikoki kobratuko baitzaie». Iracheren hitzetan, «enpresarekin harremanetan zerbitzuan alta emateko jarri beharko litzateke, eta ez baja emateko».

Iracheren ustetan, identifikazio zerbitzu hori ez duten milaka bezerori ere kobratuko die zerbitzua Telefonica, «nahiz eta,

modelo zaharrak izagatik, euren telefonoak ez balio izan deiak identifikatzeko». Zerbitzu horretan baja ematen ez badute kontsumitzaile horiek ere kaltetuak aterako dira.

200 SALAKETA

Irachek jakinarazitaokoaren arabera, Telefonica identifikazio zerbitzua kobratzen hasiko zela adierazi zuenetik, dagoeneko ehunka kontsulta eta

erreklamazio jaso dituzte. Abuztuko faktura jaso duten bezeroak dira gehienak. Horren aitzinean, 1004 telefonora deitu eta zerbitzuan baja emateko aholkatu du Irachek. Horrez gain, erreklamazioa aurkezteko ere gomendatu du.

KOBATZEARI UZTEKO AGINDU DU MINISTERIOAK

Horixe agindu dio Espainiako Gobernu-ko Osasuna eta Kontsumo Ministerioak Telefonitari. Irache Kontsumitzaileen Elkarteak, bere aldetik, «gaizki kobratutako kopuruak automatikoki itzultzea» eskatu dio Telefonitari.

Zernahi dela, Irachek dei egiten die kaltetuei berehala jar daitezzen harremanetan euren Kontsumitzaile Elkartearekin dagokion erreklamazioak tramitatzeko.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

JARDUNALDIAK

BERA

Urriaren 3tik 5era Mikologiari buruzko V. jardunaldiak. Xehetasunak 8. orrialdean.

BESTAK

GARTZAIN

Urriaren 10etik 13ra Pilarika Bestak. Xehetasunak 38. orrialdean.

OSPAKIZUNAK

LEITZA

Urriaren 4an, Aurrera Kirol Elkartearen II. Eguna. Egun osoan ekitaldiak.

SALDIAS

Urriaren 5ean, Urrutia erremontelariari omenaldia. Xehetasun gehiago 28. orrialdean.

BORTZIRIAK

Urriaren 7an, 9an eta 11n, *Mugarik gabe* topaketa Etxalar, Lesaka eta Beran. Xehetasunak 25. orrialdean.

BEINTZA-LABAIEN

Urriaren 4an Urriruko besta Itturondo Elkarteak antolatuta. Xehetasunak 29. orrialdean.

ZUBIETA

Urriaren 11n Euskararen Eguna. Xehetasun gehiago 31. orrialdean.

LEHIAKETAK

LEITZA

Urriaren 11n, Leitzako III. Ipuin edo Narrazio Laburren Lehiaketa, 16 urtetik goitiko herritarrentzat. Aurkezteko azken eguna urriaren 17a Astiz eta Maimur liburudendetan. Xehetasun gehiago 34. orrialdean.

LIBURUAK



Golgota

Xabier MONTOIA
ELKAR

Urteetako gerra sufrituko du Felisak, aita eta ahizpa hil zizkiotenen gogaideek beren gorrotoaren biktima eginen baitute geroan ere. Moja sartuko da Felisa, ahizpa Elena bihurturik errukia eta barkamena ezagutuko dituelakoan, baina maitasunaren lekuan bazterkeria bihozgabea jasaten du berriz ere. 1936ko udan hasi eta XX. mende amaieraraino luzatzen den istorio lazar-garria idatzi du Xabier Montoia; fintasan psikologiko ha-

rrigarriz eta leunkeriarik gabeko idazkera gordinez, gizakiaren xalotasuna eta ankerkeria bere biluztasunean erakutsi dizkigu egileak. Ahalginak ahalegin, bizitza oro den borrokaren alferrikakotasuna, beharbada. Ez da Xabier Montoia gasteiztarraren lehendabiziko lana. Genero aunitzetako argitapenak egin izan ditu gainera, eta aldi honetan, Gerra Zibilaren hasierara jo eta orduan kokatutako istorioa kontatu digu.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituko
106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK

801. Agurrak

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuko bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com


DONEZTEBE. ZAZPIGURUTZE
PLAZAN 115 m²KO PISUA SALGAI.
3 LOGELA, 2 BAINUGELA ETA
TRASTELKUA. EGUZKITSUA ETA
ESTREINATU GABEA.

630 948271

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

LESACA. 229 m²ko familia bakarreko etxearen proiektua, lurarekin eta lizentziarik salgai. Eremu urbanizatua ura, argia, urzikinen putzua... Promotorerik interesatua egonez gero, permutarako prest. 40 milioi Pta. ☎678 526091.



DONEZTEBE. 100 m²ko pisua salgai Zazpigurutze auzoan. ☎639 184210.

DONEZTEBE. Pisua salgai. 156.000 euro (26.000.000 pta). ☎607 978656.

LESACA. Herrigunean

Baztango promoción inmobiliaria

BAZTAN-BIDASOA:

- Pisu haundiak eta ttiak
- Etxeak herrigunean
- Baserriak lur eremuekin
- Bordak lur eremuekin
- Lokal komertzialak
- Pabiloi industrialak

SALGAI ETA ERRENTAN EMATEKO

Etxebizitzen errehabilitazioa
Tasazio eta balorazioa

Ondasunen salmenta eta alokairua

Abokatua:


- Proiektu urbanistikoak
- Lurzoruen gestioa
- Herentziak

Kattonberri karrika, 4
31780 Bera. Navarra

Tfn. 948 630552
Faxa 948 630106

168m²ko etxebizitza adosatua salgai, eta 52m²ko beheko solairua. ☎646 121536.

DONEZTEBE. Etxebizitza independentea salgai, zaharberritua, 2 solairu eta lokal komertziala. Merkatarien Karrika 27. Zuzenean promotoratik. ☎607 978656.



GAZTELU. Pisua salgai. 2 logela, egongela, sukalde, komuna eta trastelekua. Prezio onean. ☎620 345175.

LEITZA. Herri erdian, Uhartte Gotzaina kalean, bigarren eskuko pisu mobleztatua salgai. 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. ☎699 174053.

ETXEBIZITZAK 103 Errentan eman

ELGORRIAGA. Pisua baratzearekin errentan emateko. ☎948 450432 (arratsalde).

ETXALAR. Pisua errentan emateko. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎ 943 638131.

ETXEBIZITZAK 104 Errentan hartu

LESACA edo inguruan etxebizitza bat errentan hartuko nuke. ☎667 492616.

GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

LEITZA. Herri erdian 92m²ko lokala salgai edo errentan emateko. ☎948 510122 / 977 793681.

GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan eman

BERA. Legia karrikan 30m²ko lokal komertziala errentan emateko. ☎646 336291.

LURRAK/ORUBEAK 112 Saldu

ARIZKUN. 1.654 m²ko eta 1.816 m²ko bi lursail salgai, herrigunean. ☎636 408925.

DONEZTEBE. 250 m²ko lursail urbanizatua salgai.

☎617 059683.

DONEZTEBE. 490 m²ko lursail urbanizatua salgai.

☎617 059683.

ZERBITZUAK 208 Bertzelakoak

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

LANA 301 Eskariak

Esperientziadun emakume bat Irundik Doneztebera bitarteko herrietako jate-txe edo ostatuetan zerbitzari lanetan ariko litzateke. ☎620 036655.

Argintzako lanak eginen nituzke. ☎688 688308.

BORTZIRIAK, BAZTAN edo **MALERREKAN**, emakume batek zerbitzari lanetan edo haurrak zaintzen lan eginen luke. ☎671 485314.

BERA emakume bat lan bila dabil. ☎636 664577.

Emakume euskaldun batek goizez lan eginen luke. ☎948 592469.

LANA 302 Eskaintzak

Gasolindegia batean langilea behar da. ☎948 631370 / 629 083567.

BERA. Haur bat zaintzeko pertsona bat behar da. ☎607 410499 (15:30etik aitzinera).

BERA. Emakume euskalduna behar da astean bi egunez etxe bat garbitzeko. ☎618 963424.

ARANTZA. Aterpean sukaldari laguntzailea behar da. ☎948 634179.

ELIZONDO. Ileapaindegia

batean lan egiteko neska bat behar da. ☎948 452467.

MOTORRA 501 Salerosketak

Xsara HDI 1.9-90 zaldi salgai. Egoera onean, 2004ko urrikoa. ☎650 948330.

Rieju RR motorra salgai, beltza eta 50 cckoa. Egoera onean eta zortzi hilabete-ko garantiarekin. ☎626 097128.

Seat Ibiza 1.4 autoa salgai. 2007ko urrikoa, 17.000 km. ☎699 112081.

Peugeot Expert HDI autoa salgai. 6 urtekoa, 100.000 km. Lanerako aproposa. 7.500 euro negoziagarriak. ☎699 509003.

Yamaha R1 motorra salgai, 2005ekoa. ☎696 974454.

Suzuki Samurai luzea salgai. ☎669 980872.

MOTORRA 502 Tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

ANIMALIAK

602 Salerosketak

Setter ingeles arrazako hiru hilabete-ko zakurkumeak salgai. ☎618 962663.

Ahari mutur gorria, adarrik gabekoa salgai. 6 urtekoa. ☎678 959534.

Katu pertsiarrek salgai, urtebetekoa. ☎615 782292.

Basurde ehizarako **4 zakurkume** salgai. 2 hilabete-koak. Aita eta ama ehiztari onak. ☎948 387098/639 922256.

2 zakurkume salgai, merke. Ama teckel enano arra-

zakoa eta aita sagu-zakua. ☎647 810149.



Monturako zaldiak salgai. 4 eta 8 urte artekoak. ☎625 704419 /618 206168.

DENETARIK 701 Galdu/aurkituak

BERA. Euskalduna jate-txearen inguruan katu gris aurkitu da. ☎647084573.

ELIZONDO. Uztailaren 26an argazki kamara digitala galdu zen. Argazkiak balore sentimental handikoak dira. ☎660 984211. Goizuetara doan errepidean, baserri bateko sarreran, Gaztelu Otxandorena, Bixente izena duen txartel bat aurkitu da. inor861@yahoo.es edo ☎606 552845.

BERA. Bestetan lepoko katea galdu da. Alejo eta odol taldearen izenak daramatza. Aurkitzen duenak eskupeko jasoko du. ☎948 627627.

SUNBILLA. Cocker Spaniel arrazako bi zakur galdu dira, bat beltza eta bertzea kanala kolorekoa. ☎605 878202.

LEURTZAKO URTEGIE-TAN sakeleko telefono bat aurkitu zen irailaren 18an. ☎948 451957.

DENETARIK 702 Salerosketak

3 urte dituen **kutxa erregistrazaila** salgai. Egoera onean. ☎619 973375.

Surako **pago egurra** puskatua salgai. ☎626 220121.

ETXALAR. Esne tanke errefrigeratua salgai. Ma-

nus markakoa eta 100 litroko kapazitatearekin. ☎948 635168.

Ongarria hedatzeko erremolkea salgai, traktore haundientzat. ☎649 575549 (goizez deitu)

Kalefakzioko kaldera salgai, gas propanokoa. 8 bat erradiadore eta ura berotzeko balio duena. ☎638 236161.

Apal metalikoak salgai. ☎660 393436.

Belarra idortzeko tresnak salgai. ☎678 959534.

DONEZTEBE. Mahaiak, taburete altuak eta aulkiak salgai. Egoera onean eta berriak. Elkarte eta txokotarako egokiak. Bi neurritakoak. ☎619 913375.

Teila zaharrak salgai. ☎669 980872.

Bigarren eskuko **plastiko-ko 550 kaxa** salgai. 280 kaxa 80x60x22 neurrikoak eta 270 kaxa 40x60x30 neurrikoak. ☎618 542592.

DENETARIK 703 Bertzelakoak

EURODISNEY. Helduentzako sei txartel eta haurrentzako bertze sei txartel oparitzeko. Irailaren 1etik irailaren 19ra balio dute. ☎948 637050 (deitu bulego orduetan).

ECIP
Energia Berriztagarrien
Instalazioa eta Ingeniaritza

Eguzki-energia termikoa
< Kontsumoko ura berotzeko
< Berogailuak
< Igerilekuetako ura berotzeko

Eguzki-energia fotoboltaikoa eta haize-energia
< Etxe bakartuak elektrifikatzeko
< Sare nagusiari elektrizitatea saltzeko

Biomasa < Pellets galdarak

ALTSASU
www.esipsolar.com
info@esipsolar.com
T eta F: 948.564.024
Mug: 609.74.52.25

larkilamak
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAK
INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO • Santiago, 54 behea • 948 581 931
BERA • Eztegarra, 8 behea • 948 625 232

**MERKATU
TTIKIA**
zure iragarkia **3** tokitan

8€

ttipi-ttapa
Tel. 948 635 458 Faxes: 948 635 457
www.ttipi.net

Argazki soilak: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



GAZTELUKO NAHIA SARRATEA FAGOAGA. 5 urte urriaren 3an! Musu bat Alain, Joseba eta Mikel eta familia guztiaren partetik. Zorionak moñorika-potxolika!



DONAMARIAKO GURE PRINTZESAK 5 urte bete ditu urriaren 1ean. Zorionak MAIALEN eta muxu potolo bat atta, ama, Mikel eta Unairen partetik.



DUNIA BERATARRAK 13 urte bete ditu irailaren 27an. Zorionak familia guztiaren partetik.




ENAITZ PORTU sunbildarrak 4 urte bete ditu irailaren 23an. Zorionak familia guztiaren partetik.



JON ETKEPETELEKU BURGETE lesakarrak 7 urte bete ditu irailaren 17an. Zorionak atta, ama eta berexiki Josu eta Aneren partetik.



BERAKO OIER GOIENETXE MARITXALARREK irailaren 23an lehengo urtea bete du. Zorionak etxeko partetik eta muxu bat loritz eta ataxi-amaxien partetik



ARANTXA TOLOSA eta OIER GASTESIK irailaren 22 eta 27an 33 eta 3 urte bete dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik eta berexiki izaba M^a Joseren partetik.



AIZOANGO JANIRE REMIREZ PERURRENAK 4 urte bete ditu irailaren 29an. Zorionak eta muxuak Iturongo amaxi, izaba-osaba eta Irungo osaba-izaba eta berexiki Naroa eta Unaxen partetik.



SARA SANTESTEBAN OTXANDORENAK 2 urte bete ditu urriaren 4an. Zorionak Zubietako bi familia eta berexiki aitaboa eta amaxoren partetik.



AIZOANGO JANIRE REMIREZ PERURRENAK 4 urte bete ditu irailaren 29an. Zorionak eta muxuak Iturongo amaxi, izaba-osaba eta Irungo osaba-izaba eta berexiki Naroa eta Unaxen partetik.



SARA SANTESTEBAN OTXANDORENAK 2 urte bete ditu urriaren 4an. Zorionak Zubietako bi familia eta berexiki aitaboa eta amaxoren partetik.



AIZOANGO JANIRE REMIREZ PERURRENAK 4 urte bete ditu irailaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat atta, ama eta nola ez, Iraiaren partetik.



MARIBEL TABERNA arantzarrak 24 urte beteko ditu urriaren 19an. Auniz urtez eta muxu haundi bat! Aupa Esto Karrika!



ALMANDOZ ARANTZARRAK 24 urte beteko ditu urriaren 21ean. Auniz urtez! Ailegatu da eguna eta suertetik hoberena gure fisioari!



ENDIKA PINTO MARITXALARREK beratarrak 4 urte egingo ditu urriaren 6an. Muxu haundi bat attatto eta amaxoren partetik. Zorionak!




ENDIKA PINTO MARITXALARREK beratarrak 4 urte egingo ditu urriaren 6an. Muxu haundi bat attatto eta amaxoren partetik.



DONAMARIAKO XUBAN ERBITI BALEZTENARI musu haundi bat eman nahi diogu, irailaren 25ean 3 urte bete dituelako. Ibinka eta Ugaitzen partetik.



DONAMARIAKO BIHOTZ BALEZTENARI zorionak eta musu haundi bat eskaini nahi diogu; irailaren 24an 2 urte bete dituelako. Ibinka eta Ugaitzen partetik.



ITXASO BERROZPE MITXELENA lesakarrak irailaren 29an urteak bete ditu. Zorionak guraso, amaxi-ataxi, izaba, Joan eta lehengusu Janire eta Aimarren partetik.



ITXASO BERROZPE MITXELENA lesakarrak irailaren 29an urteak bete ditu. Zorionak guraso, amaxi-ataxi, izaba, Joan eta lehengusu Janire eta Aimarren partetik.



ENAITZ PORTU ZELAIETA sunbildarrak irailaren 23an urteak bete ditu. Zorionak gure xagutoari eta 4 muxu potolo atta, ama eta familia guztiaren partetik.



ZORIONAK SUNBILLA-IRURITAKO SARAY BAZERRIKO OBREGOZORI, irailaren 30ean urteak bete dituelako. Sunbillako baserrikoen partetik muxu haundia printzesa. Eta agertu tarta puxka batekin!



ENAITZ ZUBIRI ARBURUA leitarak 6 urte beteko ditu urriaren 19an. Zorionak aitona, amona, osaba, izaba eta lehengusu tikiaren partetik.




ARANTZAKO ENERITZ BURLADAK irailaren 27an 2 urte bete ditu. 2 muxu haundi etxeko printzesa-iri. Zorionak atta, ama eta berexiki Iraideren partetik.



ANAI ROTH ARROSPE etxalartarrak urriaren 7an 7 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



ANAI ROTH ARROSPE etxalartarrak urriaren 7an 7 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



SUNBILLAKO MAITANE eta PABLORI: zorionak bikote! Ailegatu da eguna! Ongi ongi pasa zuen koadrilaren partetik.



SUNBILLAKO MAITANE eta PABLORI: zorionak bikote! Ailegatu da eguna! Ongi ongi pasa zuen koadrilaren partetik.



SALVADOR MADARIAGA eta SECUNDINA BERGARA arantzarrak 50 urte beteko dituzte ezkontuta urriaren 11n. Auniz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



SUNBILLAKO MAIALEN ARRETXEAK 2 urte beteko ditu urriaren 11n. Zorionak mari matrakal! Ongi pasa eguna eta muxu bat atta, ama eta Iradiren partetik.



MAIALENENK 2 urte beteko ditu urriaren 11n. Auniz urtez! Iradi, Ibai, Janire, June, Ekiñe, Oihan, Egoi, Eneit, Ekaitz, Xuban, Ane eta Beñat.



IRATI ELIZONDO beratarrak urriaren 11n 4 urte beteko ditu. Zorionak atta eta amaren partetik.



ANE OTAMENDI beratarrak 5 urte beteko ditu urriaren 5ean. Zorionak printzesa familiaren partetik. Mila zorion eta muxu. Atta, ama eta Naroa.



IRUÑEKO AIMAR ALZUGUREN LARRAZAK 5 urte bete ditu irailaren 27an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.

ttipi ttapa

Harpidetza 08

ESPAÑA ————— 34 €
EUROPA ————— 52 €
AMERIKA ————— 115 €
Baxta, Bertizarana, Urdazubi, Malerreka ————— 27 €
Sara, Sempere, Askain Lo Paste ————— 52 €
Bortzirioak, Areso, Goizueta, Leitza, Zugarramurdi eta Arana ————— DOAN

ANIMA ZAITEZ ETA EGIN HARPIDEDUN!

ttipi-ttapa aldizkaria • 948 635 458 • www.ttipi.net

Lasao

• egurrezko altzaria

Fabrikako prezioetan zure etxera
Gaztainondo, gereziko eta haritzeko altzariak
Gaurko diseinu eta kolore berriak, beti egurrean



Lasao Industrialdea • AZPEITIA
tel. 943 15 11 82 • informacion@lasao.com

www.lasao.com



zure argazkia,
marrazkia...
telebistan
ikusitahi duzu?

BIDALI
kontent jorriko
noiz!!

marimore@ttipi.net
helbidera bidali
eta **marimore**
saioan aterako da.



marimore

astartetan 17:00etan
larunbatetan 11:00etan
TTIPI-TTAPA TELEBISTAN



EGUTEGI

pertsonalizatuak

SAKELAKO EGUTEGIETAN

83,99€
200ale

129,99€
500ale

BEZ gabe



SAKELAKO EGUTEGIAK · MAHAI EGUTEGIAK · PARETAKO EGUTEGIAK
diseinu eta mota askotakoak

KULTURKARI

Fakturak · Txartelak · Logotipoak · Foiletoak · Aldizkariak · Kartelak...

Andutzeta 12, 31760 ETXALAR · Tel. (0034) 948 635 458 · kulturkari@ttipi.net